




ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2017ko apirilaren 20a | XXXVII. urtea | 684. zenbakia

Elurre IRIARTE BAÑEZ → 28



Literaturako Baztanez ari den liburua idatzi du

Feriak

Elizondon eta Beran

LESAKA → 12

Gazte Eguna ospatuko dute apirilaren 22an

IGANTZI → 15

Udaberriko bestak apirilaren 28tik maiatzaren 1era

DONEZTEBE → 19

Lehenbiziko aldiz Dantzari Eguna apirilaren 30ean

ELIZONDO → 28

Casinoren lurra herriarena dela dio epaileak



Arrastoa utzi duten errestoak

Hemeretz urtez profesionaletan jokatu ondok, maiatzaren 7an Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatu du azken partida Abel Barriolak. Ttikitako ametsa egia bihurtuta agurtuko ditu kantzak Leitzako atzelari haundiak. → 36-37



KULTURA → 40

Nafarroaren Eguna apirilaren 30ean

Kartsuki, alaiki, herria eraiki lelopean egun osoko besta antolatu dute bertze urte batez Baigorriin.

BERA → 11

Isidoro Fagoaga gogoan lehen ekitaldiak prest



GOIZUETA → 25

'Goizuetako dokumentu zaharrak' liburua argitaratu du Patziku Perurenak.



Zuri-beltzean osatutako historia

1888tik XX. mende erdira arteko 700 bat argazkirekin 'Leitza argazki zaharretan' liburua osatu dute azolanean. Maiatzaren 26an aurkeztuko dute.

ERREPORTAJEA → 3-5

ZOKKETAK → 48



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra.



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Instalazio Elektrikoak:
Industria, etxebizitzak, komertzioak...

Instalazio automatizatuak eta programatzaileak:
Partner zenbakiak 37050 eta 43139

Proiektu elektrikoak. Kolegiatu zenbakia: 3868

Goi mailako kalitate zerbitzuak:
- MOBOTIX bideozaintza
- SONOS musika

fenienergía

Energia sentitzeko bertze modu bat



Dirua aurreztu nahi duzu?

Zure konfiantzazko instalatzailearekin baino hoberekin?

Elektrizitate eta Gas Fakturak aztertzen ditugu dirua aurrezteko helburuarekin, **konpromisorik gabe**

Domotikaren abantailak:

Energiaren kostua murriztea zereginak automatizatuz
Segurtasuna hobetzea
Pertsonen bizi kalitatea hobetzen da
Mantenerako zerbitzuen efizientzia hobetzen da
Kontrola eta egiaztapena
Zerbitzuak urrunetik gestionatzeko aukera



Zalain Industrialdea, 42B-4.pab. | T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046 | jmandueza@tximistindar.com | jmiriarte@tximistindar.com



BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA | T. 948 631 218 | kateabera@telefonica.net

ETORRI ETA SOLASTUKO DUGU

Oparitu osasuna!























UTZITAKO ARGAZKIA

Inauterietan eskean ateratako herritar taldea.

OSPAKIZUNA → LEITZA 1917-2017 EKIMENAREN BAITAN

Zuri-beltzeko irudiak historia koloreztatzeko

‘Leitza argazki zaharretan’ liburua osatu dute 1888tik XX.mende erdira arteko argazkiekin

Gutxi batzuen esku zegoen ondarea, guztion eskura jarri nahi izan dute. Batean eta bestean bildutako argazkiekin herri memoria osatu. Auzolana baliatuta, Leitzako 3.000 argaz-

kitik gora bildu dituzte eta horietatik 700 ingururekin osatu dute liburua. Udaletxeko eraikinaren mendeurreneko ekitaldien baitan, maiatzaren 26an aurkeztuko dute 19:00etan.

Eneritz IRAOLA

Abuztuaren 11n beteiko du mendea Leitza-ko Udaletxeak eta hori baliatuta, herriko memoria bildu eta landu nahi izan du Udalak: «herritarrek inoiz ahaztuko ez duten zerbait antolatuta nahi genuen. Hainbat aukera aztertu genituen: ekitaldiak, erakusketak, festak... eta azkenean horiek guztiez gain, herriarena den on-

darea, herritarrei bultzatzea ederra izanzen zela pentsatu genuen».

Julian Zabaleta Kultur Zinegotziak bere gain hartu zuen egitasmoa gidatzeko ardura eta batean eta bestean bila ari zela antzinako grabazio batzuen berri izan zuen «grabazio horiek bazirela jakin nuen Donostiako filmotekara joan eta Madrilgo eta Bartzelonako

artxiboekin ere kontaktuan jarri nintzen. Hariari tiraka hainbat pelikula bildu nituen: gehienak herri kirolen inguruak eta baten bat Sario paper lantegikoa, lantegia eta langileak lanean agertzen zirena. Txoratuta geratu nintzen grabazio horiek ikusita». Materiala biltzen segitzeko jakinmina piztu zitzaion orduan: «batzuekin eta bes-

teekin hitz egin, argazkiak eskaneatzen eta biltzen hasi eta esku artean mordoxka nituela ikusitakoan, bilduma osatu genezakela pentsatu nuen».

MATERIAL BILKETA

Artxiboetan gordeta edo gutxi batzuen esku zeuden argazkiak lortzea bihurtu zen orduan erronka «duela 50 edo 100 urte, aukera gutxi zeuden etxeetan momentuko irudiak hartzeko. Kanpotik etortzako bidaiariak izaten ziren argazkiak egiten zituztenak, momentu historikoak irudietan biltzen zituztenak». Eta argazkiak askotan bisitariekin batera joaten ziren herritik: «inguruko udalerrietako artxibategietara joan behar izan dut material bila. Asko lagundu didate eta materiala lortzeko erraztasun asko eman dizkidate. Artxibategietako langileez gain, Joxepe Irigaray eta Joxe Etxe- goienek emandako la-



GIZARTERATZEA

«Argazkietan guk bizi edo gure herrian izandako oroitzapenak biltzen dira. Gure memoriaren ondare berezia da, bilduma honen bidez herritar guztien eskura jarriko dena».

Julian ZABALETA

‘Leitza argazki zaharretan’ liburuaren koordinatzailea.

guntza ere azpimarratu nahi nuke. Bi lagun hauen gidaritza ezinbestekoa izan baita liburu honek argia ikusteko».

**HERRITARREN
ESKUZABALTASUNA**

Artxihoak ez dira izan, ordea, material iturri nagusia «herritarren eskuzabaltasuna azpimarratu behar da. Leitzako herritarrek euren etxeetako ateak ireki dizkidan eta argazkiak eta informazioa eskaini». Kontuan izan behar da argazki-kamera ez zela denon eskura zegoen tresna «familia batean edo bestean asko aurreztu ondoren argazki-kamera bat erosten zen... baina argazkiak une berezietan bakarrik ateratzen ziren. Familiek ez zituzten gaur egun ditugun argazki bilduma haundi horiek, ezta gutxiago ere». Horregatik argazkiak askorentzat erlikia bihurtzen dira.

Material hori guztia gizarteratzeko bitartekoa izanen da *Leitza argazki zaharretan* liburua «leitzarrei euren historiari zati bat bueltatu nahi zaie; beraien irudiak, ezagunenak, bizipenak... erakutsi nahi zaizkie. Batez ere, norberak bere etxean disfrutatzeko, beste garai batzuetaz oroitzeko edota historia barrenean sartzeko; altxorrez jositako liburu bat egin nahi izan dugu».

GARAIA ZEHAZTU

XX.mende hasieratik erdialdera arteko Leitzako historiaren bilduma da osatu dutena. Argazkien bilketa orokorra egin zuten hasieran baina, kopurua handitzen zihola ikusita garaia determinatzea ezinbestekoa izan zen: «hurrela beste lanketa batzuk egiteko aukera izan nuen, argazkiekin batera orduko egunkarietan eta artxihoetan jasotzen ziren gertakariak bildu eta argazkiekin harremantzeko. Argazki bilduma izateaz gain, momentuan momentu-



UTZITAKO ARGAZKIA

'Leitza argazki zaharretan' liburuan biltzen diren argazkietako batzuk.

ko bitxikeria eta albis-teak ere bildu nahi nituen». Dena den, garaia determinatzea ezinbestekoa izan zen: «hurrela beste lanketa batzuk egiteko aukera izan nuen, argazkiekin batera orduko egunkarietan eta artxihoetan jasotzen ziren gertakariak bildu eta argazkiekin harremantzeko. Argazki bilduma izateaz gain, momentuan momentu-

HAINBAT BITXIKERIA

Ez dira gutxi izan argazki horien artean aurkitutako bitxikeriak «argazki guztiek badute berezko berezitasun hori. Zuri-beltzean duela 100 urteko Leitza irudikatzen dute: bertan azaltzen diren pertsonak, euren begiradak, momentuan egiten ari direna... hamaika istorio atera litezke argazki

bakoitzetik». Besteak beste, emakumezkoen presentzia aipagarria da oso «dantzari, antzerkian, pestan, paseoan, lanean... ageri dira argazki askotan eta ez da ohikoa hamarkada horietan emakumezkoak argazkietan agertzea. Irudi horiek balio berezia dute».

Argazkiak ikusita, inork gutxi ezagutzen

zituena ekitaldien berri ere izan du Julianek «Leitzan bertan eski txapelketak egiten ziren. Gaur egun inolaz ere ez nituenak imajinatuko. Dirudenez, tren hartuta jendetza etortzen zen Leitzara eskiatzera eta txapelketa hauek jarraitzen ziren argazkiak aurkituko dituzte irakurleak liburuan».

Motzean

• Elkarlanaren emaitza da liburua...

Gure herrietan batzuetan hain errotuak dauden diferentzia ideologikoak alde batera utzi ditu jendeak eta parez pare ireki dizkirate ateak euren etxeetan dauden argazkiak erakusteko eta biltzeko. Ez da ahaztu behar, bilduma honetan Euskal Herriarentzako gogorak izan diren urteak biltzen direla. Horri ere islada eman behar genion, ahalik eta ikuspegi zabalenaekin, argazki-bilduma hau gure historiaren erakuslehoia izatea lortu nahi banuen.

• Zein da hurrengo pausoa?

Argazki liburu hau hasiera dela uste dut. Herri batek izan behar duen historia irudikatuaeren lehenengo urratsa da. Oraindik lan asko dago egiteko, jakin badakit oraindik badaudela argia ikusi ez duten argazki dexentei. Espero dut behin bilduma hau argitaratuta horiek ere azaltzea. Argazkien kontu hau ez baita idazle eta liburu egileen ondarea, baizik eta herri oso batek izan behar duena. Espero dut urtearen poderioz, udaleko artxibategian bildu ditugun argazkien kopurua handitzea eta Leitzak berezko fototeka izatea pertsona guztien kontsultarako irekia..



PERTSONAIA HISTORIKOAK

XX.mendeko pertsonaia historiko garrantzitsuek ere bisitatu zuten herria «Leitzaundi, Iruñea pare, Madrilek ere nahi luke esan izan da, eta argazki bilduma honenkin ohartu naiz ez dela gutxiagorako. Mende gatazkatsu horretan pertsonaia ugari eta bereziak pasa ziren herritik: Orixe idazlearen bisita argazkietan izateaz gain, Primo de Rivera eta Wuhuko (China) apezpikua zen Vicente Huarteren irudiak ere baditugu».

HERRIAREN ALDAKETA AGERIAN

Begi-kolpe batez nabari dira duela mende bateko Leitza eta gaur egungoaren arteko desberdintasunak «duela 100 urteko herriak ez du deus ikustekorik Sario paper lantegia eraiki ondorengoarekin. Kaleak, Plazaola, etxeak, bidak... Elizak berak ere aldaketak jasan ditu.

Ikaragarri polita da garai bateko argazkiak gaur egungoekin alderatzea». Hain zuzen, alderaketa hori egiteko aukera izanzen dute herritarrek aste gutxi barru. Maiatzean erakusketa osatuko dute Aieneko garbi-

lekuan «osotara 60 argazki egonen dira ikusgai. Garai bateko 30 argazki jarriko ditugu eta gaur egun, toki berean argazkia aterata zer ikusten den jakinen dugu. Batean eta bestean ikusten dena konparatu eta

alderaketa hori egitea herritarren esku egonen da gero».

LIBURUA MAIATZEAN ESKURAGARRI

Maiatzaren 26an kaleratuko dute 2015ean ontzen hasi ziren proiektuaren emaitza. *Leitza argazki zaharretan* liburuaren aurkezpena 19:00etan izanen da Udalatxean. Ondotik, salgai jarriko dute Maimur eta Asititz liburutegietan 20 euroren truke. Herriarena dena, herriari itzuliz.





Nire txanda
Koro IRAZOKI

Euskal safariak

Batzuk Afrika alderat gaten dire emozio berriak bizitzera eta animalia bitxiak ezagutzera (lehoiak, jirafak, elefanteak ...).

Ba, hain hurrun gan gabe, guk ere hemen berean, esperientzia pulit batzuk bizitzeko aukera ere badugu: udazkenean zerura begiratu eta, uso banda bat pasatzen ikustea baino politagorik ote da? Edo Bidasoko presetan adi-adi egon eta izokinak salto egiten ikustea, ah ze adrenalina txutea!

Edo Bertizko parkera gau batez gan, eta menditik jau-tsi diren oreinak hurbil-hurbiletik ikustea.

Edo neguko egunen batean mendirat gan, putzuak bilatu, eta han igelek jarri dituzten mahats-pikor itxurako arrautzeak ikustea. Eta zailago eta emozionanteagoa oraindik: mahats-pikor arrautze hoi-en artean, hainbat igel ikustea, itzuli eta buelta eta salto eta zuri begira adi-adi gelditzen direla! Erne ibiliz gero, badira gure inguruan safariak bezain interesgarriak diren ibilaldiak. Eta merke-merkeak gero.

«Badira gure inguruan safariak bezain interesgarriak diren ibilaldiak»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Ez da jubilatzen onartzen

Hotel honetan ez da jubilatzen onartzen. Bikote homosexualak ez sartu ostatuan mesedez. Liburutegi honetan ez da beltz, mairu edo asiar jatorriko erabiltzailerik ametituko. Ahoa bete hortz geldituko ginatke horrelakoren bat ikusiz gero. Baina gero eta gehiago dira haurrik, umerik onartzen ez dutela konplexurik gabe iragartzen duten es-tablezimenduak. Eta hori ere ez da onartzen ahal.

Nabarmentzekoak



Carolina MAIA BERGARA
100 urte bete ditu Beran

1917ko apirilaren 1ean jaio zen Lesakako Pillo-
tegin eta 1949an Berara
ezkondu zenetik Basti-
dan bizi da. 5 seme-ala-
ba, 7 biloba eta 2 bir-
bilobekin ospatu du
ehun urte bete dituela.



Pedro Manuel GRAZENA
Erremontelari ohia hil da

1929an jaio zen Elgorria-
gan eta sorterriaren izena
eraman zuen 1948ko
apirilaren 16an debutatu
zuenetik. Erremontelari
profesional moduan ari-
tuzen ia 40 urtetan. Apiri-
laren 6an hil zen.



Elurre IRIARTE BAÑEZ
Sunbillako ikaslea saritua

*Landa eremua eta Baz-
tan literaturak kontatua*
liburuxka argitara eman
du arizkundarrak, Meta-
ziri talde argitaratzaile-
aren eskutik. Baztan
natura baino aunitzez
gauza gehiago dela dio.

Atzera begira
→ 2002-IV-25
TTIPI-TTAPA 324 zk.



Bertizko Natur Parkea ezagutzen Enara eta Josunerekin

Duela hamabortz urte Ostaitz enpresak hartu zuen Bertizko Natur Parkearen kudeaketa eta bertako langileak ziren Enara Larralde lesakarrak eta Josune Ibarra legasarrak eman zioten ttipi-ttapari parkearen berri. Izan ere, eskualdeko jendeak ez omen zuen parkearen berri: «Denok ezagutzen dugu Bertizko parkea, eta ezaguna denez, ez gara hurbiltzen. Horregatik saiatu nahi dugu zonaldeko jendearengana hurbiltzen. Urtero ikastetxeetako haurrak etortzen dira, eta urtean behin Arkupeak-eko kideen bisita izaten dugu. Baina bertzela, bakarka jende gutti heldu da», jakinarazi ziguten

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitate Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolona, Fernando Etxeberria, Joana Guerdian, Martin Bertiz, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

Euskal etxea (I)

Esteban IRUSTA MALLEA

Euskal kulturaren, etxeak garrantzi handia izan du. Bizitza etxearen inguruan antolatzen zen. Bizitokia izateaz gain, lantokia ere bazen, bertan baitziren ukuilua, zerritegia, arditegia, dolarea, ehundegia, oilategia, gaztandegia eta uzta desberdinak gordetzeko ganbara eta sabaia... Eta etxe inguruan, ogia egiteko labea, eta erlategia ere, gaztain enbor hutsetan. Etxearen beste osagarri bat, garaia (horreo) zen. Eraikin mota hau ia guztiz desagerturik dago gaur egun. Bizkaian gutxi batzuk daude, Gipuzkoan bat bakarra (Bergaran), eta multzorik handiena Nafarroan (Aezkoan) iraun du zutik. Gariak harrizko zutabeen gainean eraikitzen ziren, uzta hezetasunetik eta saguengandik babesteko. Etxe inguru hauei, urrutiagoko bordak gehitu behar zaizkie. Abeltzain lanetarako askotan ez zen aski etxeak eskaintzen zuten tokia eta herritik kanpo beste eraikin bat behar zen larreetatik hurbilago. Denborarekin, borda hauek egokitu zuten, familien bizitoki bihurtu ziren. Baserritarrek egiten zituzten lan desberdinen artean, asko desagertu egin dira. Horien artean, *garijota* eta *artajorra* edo *laiaketa* eta *artozuriketaz* ziren ez dakite oraingo gazteek. Lan guztien artean, kanpotarrei *sagardogintzak* ematen ziren atentzio berezia. XII.mendean, Donejakueko bidean barna ikusitakoak idatzi zituen Aymeric Picaud, erromes frantziarrak. Haien artean deigarria egin zitzaion ardoaren falta, baina sagardoaren ugaritasuna. XVI.mendean, Andrea Navagiero Venezia errepublikako enbaxadoreak, Euskal Herria ezagutu zuen, eta sagardogintza aipatzen du liburu batean: "Herri honetan ez dago ardorik eta garia gutxi. Herri guztiak sagarrondoak landatzen ditu. Sagarrekin sagardoa deitzen duten ardoak egiten dute, herritar gehienek edaten, eta ohitzen denarentzat osasungarria dena". XVII.mendean, Pierre de Lancre epaile frantsesak euskaldunen bizimoduari esaten du, sagar herrialde bat dela, sagarrak bakarrik jaten eta bere zukua bakarrik edaten dutela. Gure artera, Gipuzkoara itzuliz, XIV.mendean, bitxikeria hau agertzen da. «Sutea izan eta ur falta gertatuz gero, ardoak eta sagardoa sua itzaltzeko erabiltzea onartzen da». Eta XV.mendean, ordenantza baten, beste hau: «Sagarrak dituen bost sagarrondo moztu edo kaltetzen duenari heriotz zigorra ezartzen zaio». XVIII. mendean, Manuel Larramendi jesuita ospetsuak ardoaren presentzia hitz egiten du, Gipuzkoan Nafarroan ardoak eta Bizkaian Errioxakoa edaten zela, berritasun bezala sagardoarekin lehian. Etxe hitzak zer esan nahi duen, Zumaiako Baltasar de Etxabek bere iritzia eman zuen XVI. mendearen bukaeran, Mexikon idatzi zuen *Discursos de la antigüedad de la lengua Cantabra Bascongada* liburuan. Euskararen aldeko lan honetan etxe hitza itxi ideiarekin lotzen du. Honela azaltzen du: *Llamase a la casa Ychia que quiere decir cerrado, y agora Echea, y tambien Etsea (...)* "Eta" etxekone" hitzak zer esan nahi duen askok ez dute jakingo, nahiz eta leku askotan oso erabilia izan. Baserri batean erdi bi eginda, bi familia aparte bizi direnean, horietako bakoitzarentzat besteak dira etxekonekoak.

Manex eta karnaba

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Manexek, kaskabeltz handiarekin halako atsekabea igaro eta gero, trago txar hura ahalik eta azkarrena gairatzeko, erabaki zuen hoberena zela, berehala beste saialdiren bat egitea. Biharamunean, segituan erreparatu ziren karnaba batzuei. Izan ere, halako txoriak, etxe ondoko horma batera ari ziren behin eta berriz hurbiltzen, landare batzuen haziak jateko. Oso denbora gutxire buruan, gogoratu zuen pertsona heldu batzuei entzundako kontu bat, hau da, galbahea erabili ahal zela txoriak harrapatzeko, eta berehalaxe oroitzen ziren haren teknikaz. Zitzu bizian ukuilura jaitsi, pixka batean bilatzen aritu eta, zorioneko galbahea segidan aurkitu zuen. Garbitu eta txukundu ondoren, bi gauza behar zituen mekanismoa behar bezala martxan jartzeko: lokarri luzetxo bat eta makila txiki bat. Denbora gutxian, dena prest zeukan. Ahal izan zuen modurik bizkorrean, dena jarririk utzi zuen aida batean: landare hazidunen gainean, galbahea, alde bat lurrean bermatuta eta bestea makilatxo motzaren gainean, hau zutik zegoela. Galbahea lurrera erortzen zenerako, ongi kalkulatu zuen zirrikiturik ez gelditzeko, txoriek ez zezaten ihes egin. Gero, sokatxoa makilari ongi lotu eta ukuiluko leihatilaraino luzatu zuen lokarria. Ukuilu barruan jarri, eta txoriak noiz etorriko zain gelditu zen. Denbora gutxira, karnaba batzuk hasi ziren hurbiltzen landare hazidunetara, errezero pixka batekin, hori bai, baina, hala ere, galbaheari ez zioten aparteko garrantzirik eman eta berehala hasi ziren haziak jaten. Halako batean, Manexek hiru karnaba ikusi zituen galbahearen azpian. Zapla! tenkatu zuen soka eta galbahea istantean erori zen elur gainera. Karnaba bat barruan zegoen harrapatuta; urduri eta izututa, jirabiraka hegaldatu nahian. Bazterretako beste biek, ordea, lortu zuten ihes egitea. Manexek, kontu handiz, eskua bahe azpian sartu eta berehala lortu zuen txori gaixoa harrapatzea. Pozaren pozez eta lasterka, berriz ere kaiolaren bila joan zen txori eta guzti, animalia txikitxo hura hantxe sartzeko. Kaiolan sartu ondoren, eta aurreko egunetako akats berbera ez errepikatzeagatik, kaiola etxeko gela ilun batean jartzea erabaki zuen, horrela, iluntasunean, lasaiago egonen zelakoan, mokoka eta kolpeka aritu gabe. Manexek arreta eta jakin-min handiz jarraitu zuen txori izutiaren bilakaera. Ilunpetan, hegazti txikia isil-gordeka gelditu zen, kolpe txarrik hartu gabe. Horrela eduki zuen egun eta gau osoan, biharamun arte. Eguna argitu zuen bezain azkar, mutikoa irrikaz eta aldi berean kezka joan zen gela ilunera, bere gatibua ikustea. Une hartan geldi-geldirik eta isilik zegoen, baina argia piztu bezain laster, kaskabeltza bezala hasi zen, izu-laborri kolpeka, ihes egin nahian, eta horrexegatik, zegoen bezalaxe utzi zuen berriz ere traste gelan, egun osoan zehar, ea noizbait etsi eta lasaitzen hasten ote zen. Baina, Manexen zoritxarrerako, bigarren egunsentian karnaba oso makal eta itxura txararekin agertu zen; eguerdirako bizitzeari utzi zion, gose, egarri eta ahuleriaren ondorioz. Manexek berriro ere berebiziko zaputza harrapatu zuen; muzindurik gelditu zen. Auskalo zein pentsamendutan murgilduta geratu ote zen!

Komikia



Irakurleak mintzo

Lekarozko institutuan guardia zibilaren presentzia salatzen

Maitane MARITORENA
AZKARATE, Odeia
AIESTARAN AZURMENDI,
Kitz MENDIOLA
BARANDALLA eta Itxaso
URTIAGA VALDERRAMA
(Lekaroz BHIko irakasleak)

Lekaroz BHIko hainbat irakasle salatu nahi dugu hondar asteotan ikastetxe inguruan Guardia Zibilaren presentzia nabarmen areagotu dela. Orain dela bi aste institutuko kafetegirak bi guardia zibil uniforme eta armekin sartu ziren, kalez beztitutako bertze batekin batera.

Astebete berandua, apirilaren 4an, ikastetxe kanpoan Guardia Zibila prismatikoekin gure ikasleak kontrolatzen ikusi ditugu, zuhaixken artetik patioa zelatatzen.

Lerro hauen bidez ikastetxe barnean, nahiz inguruetan indar armatuen presentzia, jazarpena eta probokazioa salatu nahi ditugu.

Cai y Zeviya

Esteban AROZENA
(Goizueta)

“EUTXI JON – HAUSI AXIER”, Tolosako Beotibarren apirilaren 1en jokaturako promozio pilotatxapelketako finalean.

“GOIZUTAN ERABA-

KITZERA GOZ” Gure Esku Dagok ekainaren 18ko galdeketa berri emanez.

“KOMERTZIYUK”.

Oartzunen, bertako auzo bateko komertzioen zerrenda iragarriz paratutako kartelean.

Imprimaki, kartela eta abarreak lekuan lekuko euskalkiak erabiltzeko

joera indartzen ari dela iruditzen zait. Hau ona edo txarra da euskarentzat? Ni, eta ur handiegitan sartu gabe, txarra delakoan nago. Ahozkeraren arteko mugak garbi bereiztearen aldekoa naiz. Hau da, artikulu, kartel edo inprimakietan batua erabiltzearen

aldekoa gure inguruko beste hizkuntzetan egiten den bezala.

Imajinatzen al du norbaitek hemen “GOIZUTA”, edo “LEITZE” idazten den bezala askotan, CADIZEN “CAI” edo SEVILLAN “CEVIYA” idaztea?

2016 · ABENDUA

ttipi-ttapa

Liderrak gure eskualdean eta baita azterketa egiterakoan CIEsek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere

Ttipi-Ttapa
27.000 irakurle

DIARIO DE NOTICIAS	11.000 irakurle
DIARIO DE NAVARRA	10.000 irakurle
GARA	7.000 irakurle
BERRIA	2.000 irakurle
EL PAÍS	2.000 irakurle
MARCA	2.000 irakurle
EL MUNDO	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	7.000 irakurle

Ttipi-Ttapa rekin zure iragarki eragin haundiagoa du



SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%52,70
EMAKUMEAK	%47,30

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%09,00
25-34 URTE	%12,70
35-44 URTE	%22,50
45-54 URTE	%16,30
55-64 URTE	%21,40
+64 URTE	%18,10

IKASKETA MAILAREN ARABERA

LEHEN HEZKUNTZA/GUTXIAGO	%30,40
OINARRIZKO BATXILERGOA	%13,50
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%28,50
UNIBERTSITATEA	%27,60

Datu iturria: CIES, 2016ko bigarren neurtzea

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Ez da erraza, baina haurrengan transexualitate kasuak identifikatzeko, ezinbestekoa da ongi informazioa, transexualitatea zer den eta zer ez den bereizten jakiteko. Horretarako, denbora behar da. Eta arreta. Haurrak esaten duenari erreparatu, kasu egin, harekin denbora eman, eta ooren gaitetik, bere iritzia errespetatu. Hori da biderik onena».

Amaia SAGASTIBELTZA
Leitzako pediatra
BERRIA 2017.04.01



«Oraindik ez dut kontratua berritu, baina konbertsazioak bide onetik doaz. Asegar-cen pozik nago, eta ustez beraiek nerekin ere, urte asko daramazkit enpresan. 32 urte ditut eta gauzak dauden bezala, ez dut uste sei urteko kontraturik eskainiko nautenik. Hori figura handiekin bakarrik gertatzen da. Bizpahiru urterako hitzegiten ari gara».

Oinatz BENGOTEXEA
Leitzako pilotaria
D.VASCO 2017.04.03

11 galdera labur

Nor dugu Itxaro Etxague Goia?

Bere berezitasunak dituen neska normal bat.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Lagun eta familiarekin egon, bidaiatu, zinera joan, irakurri...

Gure Esku Dago?

Zoritarrez dena ez, zorionez gehiena bai.

Ekainaren 18an herri galdeketa Arantzan. Nolako eguna izatea nahi zenuke?

Egun gogoangarria izatea eta denak parte hartzea gustatuko litzaidake, bakoitzak bere pentsamenduarekin.

Udalekuetako haurrekin edo institutuko ikasleekin hobeki?

Desberdinak dira. Biek in izan dut ongi pasatzeko eta ikasteko aukera.

Zer egiten du Arantzako euskara berezi?

Bere jatorriasunak eta bizitasunak. Gainerako hizkuntzengandik gutti kutsatua izan da.

Euskararen erabileraz zein da zure iritzia?

Jaketik erabiltzera dagoen saltoa eman beharko genukeela eta hori errazteko muturreko jarrerak alde

Arantzako txokorik gustukoena?

Ilurdiko kaxkoa.

Besta egiteko tokirik gustukoena?

Lagunarte onean guttirekin nahikoa, edozein leku dela ere.

Nola ikusten dituzu Arantzako gazteak?

Euskalzaleak, langileak, bestazaleak...

Amets bat?

Ametsak ere eguneratzen dira... Momentu honetan, estresik gabe bizitzea!



Itxaro ETXAGUE GOIA → Arantzako gaztea

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

sarobe®
gozotegia okindegia
pº de eztegarra 25 bajo
31780 berà (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

IGONE
LIBURU-DENDA | PAPER-DENDA
JOSTAILU-DENDA | MARGO-DENDA
Apirilaren 23an Liburuaren eguna
%10 deskontua liburuetan apirilaren 21,22 eta 24an
Eskaintza berezia helduen liburuetan **5'95€**
KANTTONBERRI, 4 BERA | T. 948 630 626

Zalain
JATETXEA · RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

MARITX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak
T. (0034) 636 617 450

KULTURA

KULTURA → NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Julio Soto nagusitu da Anaitasunako final handian

Txapeldunaz gain, Eneko Lazkoz, Iturri, Karrika eta Maia izanen dira udazkenean abiatuko den Euskal Herriko txapelketan

TTIPI-TTAPA

Zortzi bertsolari ari ziren kantuan apirilaren 8an Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalean: Julio Soto, Xabi Maia, Eneko Fernandez, Eneko Lazkoz, Aimar Karrika, Ander Fuentes *Iturri*, Xabier Terreros eta Julen Zelaieta. Alaitz Recondok egin zituen gaitzaitze lanak, eta Fer-

nando Anbustegi aritu zen aurkezle zereginetan. Jon Abril, Mikel Beaumont, Nerea Bruño, Arkaitz Goikoetxea, Izaro Mitxelena eta Saioa Mitxelenak osatu zuten epaimahai taldea.

Finalaren lehen zatia bukatuta, Eneko Lazkozek eta Julio Sotok lortu zuten puntu gehien, eta biak pasa ziren buruz burukoa jokatzera. Binakako bi ariketa eta kartzelako lana egin ondoren bukatu zen saio puntuagarria, eta orduan jakinarazi zuen aurkezleak epaimahaiaren epaia: Julio Sotok lortu zuen puntu gehien, 925,5, eta horrenbertez, bera da 2017ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapelduna. Haren atzetik sailkatu ziren Eneko Lazkoz (906,5 puntu), Ander



UTZITAKO ARGAZKIA

Finalistak, aurkezlea, gai-emalea eta sari banatzaileekin batera, Anaitasunako oholtzan.

Fuentes *Iturri* (543,5), Aimar Karrika (499), Xabi Maia (498), Xabier Terreros (494,5), Eneko Fernandez (493,5) eta Julen Zelaieta (474,5).

LUZIA GONIK JARRI ZION TXAPELA SOTORI

Luzia Goñi 89 urteko bertsolariak jantzi zion txapela txapeldunari. Ehunka bertso idatzien egile da Goñi, eta urteetan sustatu du bertsolaritza. Bere garaiko emakume askok bezala, ordea, ezin izan du plaza publikoan jardun. Haren bitartez, beraz, lan isilean aritutako emakume guztien lana aitortu nahi izan du Nafarroako Bertsozale

Elkarteak. Nafarroako Korrika-ko arduradun Asier Biurrunek ere jantzi zion petoa Julio Sotori eta Nafarroako Bertsozale Elkartearen kideek biharamunean Korrikako lekukoa eraman zuten. Gainera, zortzi finalistek Aritz Irigoien marrazkilariak egindako artelanak jaso zituzten, Nafarroako Bertso Eskoletako ordezkarien eskutik.

1.300 bertsozale ingururen aurrean jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala. Tartean izan zen Nafarroako Gobernuaren ordezkari ere: bertzeak bertze, Ana Olló, Nafarroako Gobernuko

Herritarrekiko eta Erkundeekiko Harremanetarako Kontseilaria; Fernando Perez, Nafarroako Gobernuaren Kultura Zuzendaria; eta Mikel Arregi, Euskarabi-deko Zuzendaria.

Nafarroako txapelduna zehazteaz gain, 2017ko udazkenean abiatuko den Bertsolari Txapelketa Nagusirako nafar ordezkariak izendatzeko funtzioa ere bazuen Anaitasunako finalak. Lehen bortsailkatuek izanen dute aukera Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko: Julio Soto, Eneko Lazkoz, Ander Fuentes *Iturri*, Aimar Karrika eta Xabier Maia.

Caser
RESIDENCIAL

Zure ondoan,
gehien behar duzunean

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Laguntza zerbitzuak

- Medikua
- Farmazia
- Erizaintza
- Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia
- FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA
- Animazio soziokulturala
- Nutrizioa • Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erijio zerbitzuak-Meza
- Laguntza teknikoak kudeaketa
- Kanpora laguntzea

www.caserresidencial.es

KULTURA → APIRILAREN 21ETIK MAIATZAREN 1ERA ERAKUSKETA ZABALDUKO DA ETA 28AN HITZALDIA

'Isidoro Fagoaga, bada tenorea!' egitarauko lehen ekitaldiak prest

Maiatzaren 6ko ekitaldian oroit-plaka jarriko da Illekuetako Agramontea sortetxean

TTIPI-TTAPA

Isidoro Fagoaga, bada tenorea! izenburupean urte osorako zenbait ekitaldi prestatzen ari dira. Apirilaren 21etik maiatzaren 21era Isidoro Fagoagaren ibilbidea biltzen duen erakusketa irekiko da Kultur Etxean (ortzegunetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara eta igandetan 11:30etik 13:30era). Inaugurazio ekitaldia apirilaren 21ean, ortziralean 18:00etan egingen dute eta ondotik, 19:30ean, Kabarna otxoteak kontzertua eskainiko du.

Apirilaren 28an, ortziralean 19:00etan, *Isidoro Fagoaga, idazle eta kantari beratarra* solasaldia eskainiko du German Ereña ikerlariak. Hain zuzen, Ereñaren laguntza eskertu dute antolatzaileek.

Omenaldi nagusia, nolahi ere, maiatzaren 6an, 12:30ean egingen zaio, Abesbatzaren, Bandaren eta Gure Txokoako dantzarien esku-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ehun urte bete ditu Bastidako Carolina Maiak

Ehun urte bete ditu Carolina Maia Bergarak apirilaren 1ean. Sortzez Lesakako Píllotegikoa, Berako Garaitarreta eta Dornaku auzoetako mugan dagoen Bastidako Urbano Errandonearekin ezkondu zen 1949an eta bertan bizi da orduz geroztik. Bortz seme-alaba izan ditu Carolinak, zazpi biloba eta bi birbiloba eman dizkietenak eta denek elkarrekin ospatu zuten eguna. Aipatzekoa da Carolinaren ahizpa, Cristina, 103 urterekin hil zela Lesakan. Premosa baserrian bizi den Felisa ahizpa ere oraindik bizi da, 91 urterekin.

tik. Illekuetako Agramontean, bere sortetxean, oroit-plaka bat ere paratuko da.

Ba al zenekien

Lagun Haundiak elkarteak urteko batzarra egingen duela apirilaren 27an, 17:30ean egoitzan.

LANAK EKAINAREN 2RA ARTE AURKEZ DAITEZKE

Bestetako egitarauaren azal lehiaketa abiatu da

TTIPI-TTAPA

Bestak prestatzen hasiak dira. Martxoaren 23an egin zen lehen bilera irekia eta orain, bestetako egitarauaren azalerako lehiaketaren deialdia zabaldu du Kultur Batzordeak. Lanak ekainaren 2a (ortziralea) 13:30 baino lehen aurkeztu behar dira Herriko Etxeko Bulegoetan gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz eta sari bakarra izanen da, 400 eurokoa.

Nahi duen guziak parte hartu ahal izanen du lehiaketan, eta nahi bertez lan aurkeztu ahal izanen ditu. Azalak Berako besta giroa islatuko du. Azalean *Berako Bestak 2017* testua agertu behar da nahitaez eta ez du bertzelako testurik eramanen.

Formatuari dagokionez, argazkia edo irudiak kolorezkoak izanen dira, ez da diapositibarik onartuko, paperean aurkeztuko da, eta bertikal izanen da, 18x27 cm.koa.

FLASH

Fitness Eguna

Urdi Berak antolatua Fitness Eguna egingen da apirilaren 22an, larunbatean Toki Onako patioan. Ciclotho, martxa nordikoa, entrenamendua suspentsioan, hip hop-jazz-funk tailerra, zumba, aerostep edo cross training egiteko aukera izanen da, baita Power lifting konpetizioa ere.

Haurrentzako ipuin kontalaria

Liburuaren Eguneko ospakizunen baitan, Maider Galarza haurrentzako ipuin kontalaria *Maleta kontuak* kontatuko ditu apirilaren 28an, ortziralean 18:00etan liburutegian.

Azienda feria

Joan den urtean berreskuratutako ospakizunari eutsiz, apirilaren 29an, hilabeteko azken larunbatean azienda feria eguna izanen da kiroldegi aitzinean. Goizean azienda erakusketa, bertako produktuen salmenta, idi proba erakustaldia eta bazkaria izanen dira.

Sorotan Babies taldea Katakun

Askapenaren hitzaldia, pegatinen erakusketa eta Kaskezur eta Candidato Manchu taldeen kontzertuaren ondotik, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte Katakun. Apirilaren 22an, larunbatean Sorotan Babies taldeak kontzertua eskainiko du.


okaNekane
HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane
Kanttonberri 12 • BERA
Tfno/Fax: 948 630 018


xuga
tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera


BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

LESAKA

GIZARTEA → HAMARGARREN URTEURRENEAN

Zerbitzuen Elkarteak Lanzarotera bidaia zozketatuko du

Maiatzarean
2an eginen
dute zozketa

Aitor AROTZENA

Lesakako Zerbitzuen Elkarteak hamar urte bete ditu aurten eta hori ospatzeko Lanzarotera bidaia antolatuko du, gastu guztiak ordainduta. Honela, apirilaren 30era arte elkarrekin txarteltxo bereziak banatuko dituzte, zigituekin betetzeko. Zozketan parte hartzeko zortzi zigilu beharko dira. 5 euroko erosketa edo zerbitzu bakoitzeko zigilu bat emanen da eta txartel bakoitzean establezimendu bereko zigilu bat errepikatu ahal izanen da. Zozketa maiatzaren 2an eginen da, 13:30ean Udal Turismo Bulegoan. Zerbitzuen Elkarteak Udalaren eta Nafarroako Gobernua-ren laguntza izan du.

Gazte Eguna larunbatean

Buruztanka Gaztetxeak Gazte Eguna antolatu du apirilaren 22rako eta horretarako egitarau zabala prestatu dute. Larunbat goizeko 9etan gosaria eginen dute. 10:00etan dianna. 11:00etan gazte ginkana. 12:30ean sukala-

daritza txapelketa eta pankartak. 14:00etan Hendaiaiko Sasiko gaztetxeko gonbidatuei ongi etorria eta ondotik bazkari autogestionatua plazan. 17:00etan gazte jokuak. Gero kontzertuak. 19:30ean Polekeleke elektrotxaranga abiatuko da plaza-tik. 22:30ean Oskar Estangaren kantu terapia Koxkillan eta *Eman bortzekoa* bideo berriaren aurkezpena. 00:30ean DJ Jotatxo Arranon.

Dispertsioaren aurka

Apirileko lehen asteburuan, Mikel San Sebastian Gaztelumendi preso politiko lesakarraren lagun batek istripu bat izan zuen Murtziako kartzelatik bueltarako bidaian. Gainera, istripua izan duen pertsona ere lesakarra da. Lesakako EH Bilduk dioenez, «argi dago istripu hau dispertsio politikaren ondorio bat dela. Martxan dagoen dispertsio politika honek presoak ez ezik beraien lagun eta senideak ere zigortzen ditu. Lesakan, egoera hau astebururo astebururo lagun aunitzek pairatzen dute, bidaiaro beraien biziak arriskuan jarritz». Honen aitzinean, eta dispertsioak eraginda-



ARGAZKIA: RAFAEL ENETERREAGA

Haur kantarien topaketa arrakastatsua aurten ere

Giltzarri abesbatzak bigarren aldiz antolatutako Haur Kantarien Topaketa arrakastatsua izan da aurten ere. Imanol Elizasurekin ikasitakoak elizan eskaini zituzten apirilaren 1ean herriko eta Baztango abeslari ttikiek.



ARGAZKIA: RAFAEL ENETERREAGA

Euriari aurre eginez, Tantirudantza ere ospatu da

Pilotalekuan eginagatik, ez zuen dizdira galdu dantzari ttikien saioak. Herriko dantzariekin batera, Berako Gure Txokoa, Zumaiako Txori Txiki, Getariko Gure Txeru eta Lezoko Murixka taldeetakoak arin-arin mugitu zituzten oinak.

ko istripu berri baten ondoren, Etxeratek Udalean aurkeztutako mozioaren ondoren, Lesakako EH Bilduk urgentziazko osoko bilkura deitzeko eskaera egin du. Bertan, eta aho bategiz, mozioa onartu da.

Onartutako puntuek diotenez, «Udaleko batzarrak dispertsio politikaren eta urrutzearen berehalako desaktibazioa eskatzen du, senideak kaltetu eta oinaze gehitu batera zigortzen baititu». Era berean, Udal batzarrak pertsona guztien Giza Eskubideen errespetua exi-

jitzen du eta akordio hau Frantzia eta Espainiako gobernuari helaraziko

zaie, baita Espetxe Erakundeetako arduradunari ere.

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biurrañá, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattogorria
lentzeria mertzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel: 948 625 474

KULTURA → LAN TALDE EZBERDINETAN ARITZEKO

Pastoraleko lanak banatzeko boluntarioak behar dituzte

Kultur etxeko kortxoan dago izena emateko papera

Iruñe ELIZAGOIEN

Pastoralaren entsegu eta prestaketekin aitzinera doaz herritarrak, eta lanak banatzeko beharra ikusten da. Honen aitzinean lan taldeak banatu dira denen artean lanak errazago egiteko asmoarekin. Hauek dira momentuz aurreikusi diren lantaldeak: Entsaio lekuen prestaketa, entsaio eguneko bazkari-berenduen antolaketa, finantzazio taldea, arropak eta makilajea, komunikazioa, eszenatokia, inprenta lanak, ostatua pastoral egunean, aparkatzeko lekuen antolaketa, sarreren salmenta, publikoaren antolaketa... Herritarrei dei egiten zaie lan hauetakoren bate-

an laguntza ematera animatzeko. Kultur etxe azpiko kortxora joan eta bakoitzak bere izena, nahi duen lan taldean idaztea da egin beharrekoa. Gero aitzinera go lan taldeak elkarrekin bildu eta bilerak eginen dira.

Usoa kooperatibako urteko batzar orokorra

Apirilaren 29an Usoa kooperatibako urteko batzar orokorra egingen dute Kultur etxean; 19:00etan lehenengo deialdia eta 19:30ean bigarrena. Etorkizunearako garrantzi handiko bilera izanen da, eta beraz jendea agertzea eskatzen du juntak. Batzarraren ondotik afaria egingen da La Basque jatetxean 21:00etan. Apuntatzeko azken eguna apirilaren 27a da.



ARGAZKIA: JAIONE IRIGOIEN

Etxalartarrak Zugarramurdiko Bote luzeko txapelketan

Lau etxalartar joan ziren apirilaren 8an Zugarramurdi jokatu zen Bota Luze txapelketan parte hartzera. Korrika kulturalaren baitan Etxalar, Zugarramurdi, Senpere eta Sararen artean jokatu zuten txapelketa. Beñat Irazoki, Xabier Etxarte, Andoni Iribarren eta Jon Santesteban joan ziren Etxalartik eta irabaztea lortu ez bazuten ere partidu polita jokatu itzuli ziren.



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

Korrika Txikia

Apirilaren 3an Korrika Txikia egin zuten Landagain eskolako ikasle eta irakasleek. Honela banatu ziren ikasleak herrian zehar: LH6koak eskolako atarian, LH5ekoak gurutzean, LH4koak Elutsa ostatuan, LH 2 eta 3koak herri sarreran, LH 1ekoak Larraburuan, Basandereak eta Basajaunak Arrosetako iturrian, Lamiak Andutzetako aparkalekuan eta Galtzagorriak Caixan. Ondoren guraso elkar-tekoek eskainitako berendua izan zen plazan.

XAGU LIBURUDENDA
Tel./ Fax: 948 638 232

Aprilak 23 liburuaren egunean
10% eko DESKONTUA liburuetan

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

FRUTAS VERDURAS ERANDONEA, s.l.
FRUTAS USA BARAJASIAK

BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

JAIONE - COXOTEGIA

948 630 786
Altzate, 21 • BERA

ARANTZA

GIZARTEA → APIRILAREN 22AN ETA 23AN

'Gutik Zura' dokumentala eta mendi lasterketarekin asteburu ederra

Larunbatean dokumentala eta igandean lasterketa

Nerea ALTZURI

Aspaldixkotik iragarri bezala, igandean, apirilak 23, Arantzako II. Mendi Lasterketa izanen da. 08:00etatik 09:00etara dortsalak banatuko dituzte eta 09:30ean hasiko da lasterketa. 20 kilometro distantzia eta 1.300 metroko malda positiboa dituen ibilbidea hau izanen da: plazatik abiatu eta medikuaren etxetik barna, Zepuru, Illurdi, Ekaitza, Ibintza eta Oilargata pasatu eta Aientzatik Arruzpin barna plazara. Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako puntuagarria izanen da.

Sari banaketa 13:30ean eginen da. Lehenbizi -

ko hiru emakumezko nahiz gizonezkoentzat izanen dira sariak. Lehenbiziko saria txapela eta 120 euro; bigarren saria 80 euro eta hirugarren saria 50 euro. Xabier Zubieta saria ere izanen da, due-la hamar urte zendu zen herriko mendigoizalearen omenez. Ekaitzako tontorretik pasatzen den lehenbiziko korrikalari bortziriarrak jasoko du.

Ez da asteburuko ekitaldi bakarria izanen. Udaleko Kultura Batzordeari esker, bezperan, apirilak 22, *Gutik Zura* dokumentala ikusgai izanen baita. Egurraren lehena, oraina eta etorkizunari buruzko ikusentzunezko honetan, herritarrek ere ageri dira: Pantaleon Errandona eta Pili eta Kontxita Altzuri. 17:00etan eskainiko dute eskolan eta Mari Jose Barriola zuzendaria ere etorriko da.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Korrika Ttikia

Herrian ere irudi ederrak utzi ditu Korrikak. Eguraldi ederra eta musika lagun, martxoaren 31n Korrika Ttiki koloretsua egin zuten herritarrek. Apirilaren 3ko arratsean, berri, Zubietatik Saldiaserako bidean Korrika nagusiaren lekukoa udal ordezkari, eskola, Gazte Asanblada, Ekaitza Elkartea eta Aterpekoen eskuetatik pasatu zen.



Gure Esku Dago mus txapelketa

Apirilaren 9an jokatu zen Igantzin Gure Esku Dagoren baitan, Eman Bortzeko Elkartek Bortziritan antolatutako mus txapelketako finala. Herriko kanporaketatik Patxi Iturria eta Ibai Etxeberria sailkatu ziren, eta finalan, bigarren gelditu ziren.



41 bikote musean

41 bikote aritu ziren apirilaren 8an Burladan jokaturako mus tximista txapelketan. Iruñea aldetik etorritako Andoni eta Danik irabazi zuten, eta alderdi hartako Rafael eta Javier gelditu ziren bigarren. Sailkapenean hirugarren Juan Angel eta Iñaki herritarrek izan ziren.

BORDALARRIA
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

Gure Haragia
Nuestro Carne

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

EDARI AK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

OSPAKIZUNAK → HILAREN 28TIK MAIATZAREN 1ERA

Udaberriko bestak ate joka

Aurten
Liburuaren
Eguna ere
ospatuko da
apirilaren 23an

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, prest ditu Euskara Batzordeak Udaberriko Bestak. Aurten, gainera, Liburutegiko Taldeak Liburuaren Eguna antolatu du. Apirilaren 23an izanen da, igandearekin. 11:30ean hasita, haurrentzako eskulanak izanen dira, frontoian. Ondotik, Barazarrean Estitxu Mentaberri ipuin kontalaria izanen da. Eguerdian, egun horrekin lotutako pintxo pote berezia izanen da La Villan. Eta bukatzeko, 16:30ean haurrentzako

pelikula Barazarrean.

Apirilaren 28an, ortzirala, Manu Eziolazaren hitzaldia izanen da Biltokin, 19:00etan. Manu urte aunitzetan Igantziko medikua izan zen, eta orain Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkartearen presidentea da. Herrira eginen duen bitartean honetan "Heriotz duina eta bizi testamentua" gaiaren inguruan solastuko da.

Apirilaren 29an goizeko 11:00tan dantza-jazz emanaldia izanen da frontoian. Arratsaldean, 16:00etan hasita, haurrentzako tailerrak eginen dira frontoian, eta ondotik txokolata izanen dute.

Apirilaren 30ean, igandearekin, eskolako ikasleek beren urteroko antzerki emanaldia eskainiko dute Baratzon-



ÚTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako Herri Kirol Jolasetako finalean

Nafarroako Herri Kirol Jolasetan parte hartu dute aurten ere herriko kirolariak. Kimu mailako proba konbinatuan apirilaren 2an Etxarri Aranatzeko jokatu zen finalerako sailkatzea ere lortu zuen argazkiko taldeak. Laugarren izan ziren azken saioan, baina txapelketa bikaina jokatu dute.

don, 18:00etan. Ondotik, 19:30ean hasita, pintxo potea izanen da, herriko trikitilariak girotua.

Maiatzaren 1eko egunari gaiteroek ematen diote hasiera, karrrika bueltarekin. Gero, 12:00etan, berriz joko dute, herriko dantzarien saioarekin batera. Beste akabaila emate-

Ba al zenekien

Xabi Telletxearen omenez zazpigarren Mendi Bzikleta jautsiera maiatzaren 6an antolatu duela Biltoki elkarteak

ko, Siriako errefuxiatuei buruz solasaldia izanen da Eskolzarren, 19:00etan, Joxean Ortegaren eskutik.

Joxean Ortega he-

rriko eskolako irakaslea da, eta joan den udan Grezian ibili zen, Nafarroako suhiltzaileekin batera, errefuxiatuei laguntza ematen.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udaberriko kolekzio berria!

Edredoi nordikoetan espezialistak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

BORTZIRIAK

GIZARTEA → ELKARRIZAN ELKARTEAREN ESKUTIK

Arreta Psikologikorako Zerbitzuaren proiektu pilotoa martxan jarri da

Goizez eskaintzen du Amaia Pando psikologoak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Elkarrizan Laguntza Emaile Taldeak ohiko laguntzez gain, aurten arreta psikologikorako zerbitzua martxan jarri du, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta La Caixaren Gizarte Ekintzaren laguntzarekin. Asmoa, gaur egun eskaintzen den arreta psikologikoa sendotzea da, inguruan ez dagoen zerbitzu bat abiaraziz, beti ere gizarte baztertze arriskua duten kasuei lehenatasuna emanez. Zonaldeko edozein pertsona edo familiari zuzentzen

zaio zerbitzua, erlazio zailtasunak dituzten pertsonetatik hasiz, orientazioarekin landuz; trastorno psikologikoe-taraino, esku-hartze intentsiboago batekin, metodo psikoterapeutiko ezberdinekin. Esku-hartze psikologikoa- ren bidez, osasuna eta ongizatea bultzatzea da zerbitzu honen xedea; gorabehera emozionalak dituzten pertsonen bizi kalitatea hobetuz eta egokitzapen pertsonala, familiarra eta soziala areagotuz.

Amaia Pando Aramendi Berako psikologoak eskaintzen du arreta. Terapiari eta psikologia klinikoan formakuntza eta esperientzia du, baita adinekoekin lan egiten ere. Eta drogo- menpekotasunen prebentzioan, famili bitar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaia Pando psikologoa, Elkarrizan, Gizarte Zerbitzu eta La Caixako ordezkariekin.

tekaritzan eta enplegu alorrean ere aritu da.

Zerbitzu hau eskaintzen hasi direnetik, arreta beharra batez ere arlo hauetan antzeman da: depresioa, antsietatea, estresa, dolua, gaixotasun kroniko edo larri bateri aurre egitea, bakardadea, autoestimua eta gizarte trebetasunen falta, bikote-familia erlazioetan arazoak eta banaketak, eskola jazarpena, herabetasuna, jorkabide arazoak, droga kontsumoa,...

Aipatutako beharretaz gain, beste hainbat sor daitezke; bizitzan zehar gorabehera psikolo-

gikoak, emozionalak, harremanetakoak... krisi edo aldaketa momentuak izatea normala eta ohikoa baita; eta hauei aurre egiteko, edo azkarago edota indartsuago ekiteko, laguntza psikologikoa onuragarria eta beharrezkoa izan daiteke. Hortaz, zerbitzua herritar guzietatik eskaini nahi zaie. Honen harira, normalizazioa eta arreta psikologikoa desestigmatizatzea ere bertz helburuetako bat da; fisioterapeutara edo dentistara joaten garen bezala, psikologora ere inolako beldurrik eta lotsarik gabe joatea.

Proiektu pilotoa eta oraingo, behin behinekora denez, honen mantentua bultzatzeko kopago bat eskatuko da saio bakoitzeko.

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Etxalarren dituen bulegoetan, Lesakan duen bulegoan eta Berako Udaletxean ematen da arreta, goizeko 9:30etik 14:30 arte. Denaren, eskatzaileen behar araberako, arratsaldez ere artatuak izan daitezke. Hitzordua eskatuzeko Gizarte Zerbitzuen telefono zenbaki honetara deitu behar da: 948 635 036.

MAIATZAREN 19RA ARTE AURKEZ DAITEZKE LANAK

Baztan-Bidasoaldeko XXX. Bertso-paper lehiaketa abian da

TTIPI-TTAPA

Berako Kultur Batzordeak eta Bortzirietako Bertso eskolak, Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin, Baztan-Bidasoaldeko 30. Bertso-paper lehiaketa antolatuta dute, Baztan-Bidaso inguruan bizi direnentzat. Lanak Berako kultur etxean aurkeztu behar dira, maiatzaren 19a baino lehen, gisa hauetako lehiakete-

tan ohikoa den sistema erabiliz. Euskarazko, jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez diren bertsoak onartuko dira bakarrik eta norberak aukeratu ko du gaia, doinua eta neurria.

Ohi bezala, parte hartzaileak lau mailatan banatu dituzte: A maila: 10 urte artekoak. Bertso bat edo bi koplak osatu beharko dituzte. Saria:

trofeoa eta 50 euro (lehenengoak) eta trofeoa eta 30 euro (bigarrenak). B maila: (11-14 urte) Bi bertso edo lau koplak egin behar dituzte. Saria: trofeoa eta 100 euro irabazleak eta trofeoa eta 70 euro bigarrenak. C maila: (15-18 urte) lau bertso osatu beharko dituzte guttienez. Saria: trofeoa eta 150 euro lehenengoak eta trofeoa eta 120 euro bigarre-

nak. D maila: 18 urtetik goti. Gutxienez 8 bertso egin beharko dituzte. Saria: trofeoa eta 200 euro garaileak eta 150 euro bigarrenak.

Bortzirietako bertso eskolak izendatuko du epaimahaia eta sariak hutsik utz ditzake, baita sari bereziak eman ere. Ekainaren 2an, ortziralarekin izanen da sari banaketa Berako Kultur Etxean 18:00etan.

BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

*Erakutsi eta
probextu aukerak!*



<p>BIANDITZ NEKAZARIEN ETXEA</p> <p>%5 DESKONTUA pentsu ekologikoetan</p> <p>Zalain Ind. 5 BERA T. 600 97 73 39</p>	<p>bixkikak KIROL ETA MODAKO GRUPOA</p> <p>%5 DESKONTUA</p> <p>Arretxea, 11 LESAKA T. 948 63 81 10</p>	<p>bortzirudi</p> <p>DESKONTUA %15 Kanislerian %10 Inprenta lanetan %5 kopia, enkuademazio eta plásifikazioan 3€tik gortzi * Aurrekontutik kanpo</p> <p>Eztegara, 26 esk. behea BERA T. 948 63 15 21</p>	<p>elika Dietetika eta elikadura</p> <p>%5 DESKONTUA kontsultan</p> <p>Itzea, 6 behea BERA T. 948 63 12 83</p>	<p>Intzuri OPTIKA</p> <p>%5 DESKONTUA produktu guztietan</p> <p>Bittiria kalea, 28 LESAKA T. 948 62 75 50</p>
<p>Txi Savi LAND</p> <p>%50 DESKONTUA sarreran %10 DESKONTUA tirolina eta penduloetan</p> <p>Irisarri, 1 IGANTZI T. 948 92 89 22</p>	<p>KATEA BIKE</p> <p>%5 DESKONTUA konponketetan</p> <p>Kanttonberri, 1 BERA T. 948 63 12 18</p>	<p>kattigarrria</p> <p>%10 DESKONTUA lentzerian</p> <p>Behoko Plaza, 10 LESAKA T. 948 62 75 14</p>	<p>LIRAIN ESTETIKA ETA ONGIZATE ZENTROA</p> <p>%5 DESKONTUA kosmetikan %5 oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik</p> <p>Iparraldea, 1 BERA T. 948 62 57 17</p>	<p>LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA</p> <p>%40 DESKONTUA matrikulan</p> <p>Komentu, 2 LESAKA T. 948 63 74 00</p>
<p>oreKa nutrizioa eta dietetika</p> <p>%5 DESKONTUA kontsultan</p> <p>Arretxea, 11 LESAKA T. 948 63 73 73</p>	<p>Ostargi optika</p> <p>%5 DESKONTUA produktu guztietan</p> <p>Bidasoa, 8 BERA T. 948 63 07 53</p>	<p>HK podologia NORA MAIZA</p> <p>5€ DESKONTUA ibilkeraren azterketa digitaletan</p> <p>Legia, 42 BERA T. 688 87 81 77</p>	<p>Semper antzerkoko</p> <p>%10 DESKONTUA matrikulan</p> <p>BERA T. 948 63 02 98</p>	<p>Semper antzerkoko</p> <p>%10 DESKONTUA matrikulan</p> <p>LESAKA 948 63 82 99</p>
<p>ttipi-ttapa</p> <p>%10 DESKONTUA esketetan</p> <p>Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58</p>	<p>txinelka</p> <p>%10 DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p>Plaza Zaharra, 25 LESAKA T. 948 63 75 94</p>	<p>Urdu Bera BERRIKO PASTORAL 2. ETZERREAN</p> <p>%20 DESKONTUA urteko abonuaeren matrikulan</p> <p>Toki Ona Kiroldegia BERA T. 948 63 02 15</p>	<p>Zela KIROLAK</p> <p>%5 DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p>Altzate, 6 BERA T. 948 63 05 98</p>	<p>ZU lorenda dekorazioa osagarriak</p> <p>%5 DESKONTUA lore moztuan 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Altzate, 33 BERA T. 948 62 57 86</p>

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 3AN

Txikiak eta handiak elkartu ditu Korrikak

991. kilometroa hartua zuten Udalak, gazteek eta Ulibeltzak elkarteak

Maider PETRIRENA

2017ko Korrika gure heritik pasatu ez zen arren, apirilaren 3an eskualdera bisita egin zuten. Lehenik Korrika ttipi-ttapa egin zen, eskolako irakasle eta ikasle guztien parte hartzearekin. Eskolatik 6. mailakoak hartu zuten lekukoa eta herri guztian barna ba-

natuta azkenak Haur Hezkuntzako 1. mailakoak izan ziren. Denak batera giro ederrean plazara ailegatu, lekukoaren barrenean zegoen mezua irakurri eta familia argazkia atera zuten. Giro ezin hobea izan zen.

Gauean berriz eskualdetik pasatzen zenez korrika, herritar andanak (argazkian ikus daitezkeen bezala) parte hartu zuen. Udalak, Gazteek eta Ulibeltzak elkarteak 991. kilometroa eskuratua zuten, Aurtitz eta Zubieta tartean, apirilaren 3an 21:30ean. Giro bikaina izan zen bertan ere. Jen-



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA ETA JONTXU ANZIZAR

Herritarak kontent, Korrika Txikian eta Korrika handian parte hartu ondotik.

detza etorri zen Doneztebe eta ingurutik eta Iturengo herriko sarrean joaldunek harrera berezia eta hunkigarria egin zieten.

Ba al zenekien

Uxue Ibarak urrezko domina ekarri zuela Nafarroako Kirol Jokuetako Judo Txapelketatik eta Julen Lazkanok berriz brontzezkoa. Zorionak biei eta herriko bertze judokei ere.



ARGAZKIAK: ESKOLAK UTZIAK

Ikasle eta irakasleak Donostiako Zientzia Museoan eta Bilboko Guggenheim-en

Martxoaren 31n eskolako ikasle eta irakasleek irteera egin zuten. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasle eta irakasleek Donostiako Zientzia Museoan ezagutu eta bertan gozatzeko aukera izan zuten. Ondoren Txikiparkera joan eta bertan ere primeran ibili ziren. Koxkorrenak, berriz, hau da, 3., 4., 5. eta 6. mailakoak Bilboko Guggenheim museoan bisitatzerara joan ziren.

OSPAKIZUNAK → APIRILEKO AZKEN ASTEBURURAKO HITZORDUAK

Dantzariaren Eguna eta 10. Pintxo Lehiaketa prest

Zazpi ostaturik parte hartuko dute pintxo onena prestatu eta eskaintzeko lehia

Marga ERDOZAIN

Erreka Dantza taldeak eta Dantzari Txikien taldeak antolatutako lehendabiziko Dantzariaren Eguna apirilaren 30ean ospatuko da. Igande horretan, 10:30ean harrera ekitaldia izanen da Bearzana plazan; 11:00etan herrian zehar kalejira eta dantzak burutuko dira, 12:30ean dantza saio nagusia burutuko da Bearzana plazan eta ondoren, herri bazkaria izanen da. Bazkaldu ondoren muxikoak eta dantzaldiak izanen dira, Modestok alaituta. Aipatu behar da egun honetarako inguruetako dantza taldeak gonbidatu izan direla. Bazkariari dagokionez, bi menu izanen dira aukerarik: helduendako eta umeendako.

X. Pintxo Lehiaketa, berriz, apirilaren 29tik maiatzaren 1era ospatuko da. Aurtengo edizioan Pepa's kafetegia, Cafe, Mikelo, Irrintzi, Titi, Santi eta Ameztia tabernak ariko dira sukaldeak astintzen pintxo goxoak eskaintzeko eta aurtengo irabazlearen txapela janzteko.

Bestak prestatzen

Aurtengo bestak prestatzen laguntzeko



ARGAZKIA: MARGA ERDOZAIN

Erretiroa hartu du Jokin Duque udal idazkariak

Jokin Duque Ibarrondo, herriko idazkariak apirilaren 4an erretiroa hartu zuen. Doneztebeko historia jende anitzek idatzia bada, erran daiteke Jokinek bere zatitxo ere idatzi duela, 35 urte baitaramazki Elgorriagako, Lau Herrietako, Kokoriko eta Doneztebeko idazkari ardurak betetzen. Apirilaren 7an, herriko omenalditxo txiki bat egin zion eta argazkian ikusten denez, berekin batera aritutako alkate gehienak bertaratu ziren: Carlos Pikabea, Alfredo Zugarramurdi, Miguel San Miguel, Ramon Etxebeste eta Teresa Gaspar. Orain alkate den Xanti Utergak Duqueren ibilbide profesionala goraiatu zuen eta herriko ateak beti zabalik izanen dituela aipatu zion. Jokin Duque berak hitz batzuk egin zituen ekitalditxo hori eskertuz. Elvira Saez de Jauregi Urdanoz idazkariak Duquerengandik idazkariak duten jarduerarako *Zuzentasun makila* jaso zuen.

maiatzaren 3an bilera deitu dute Udaletxean arratsaldeko 8etarako. Aipatu behar da pasa den apirilaren 5ean bertaratu zirenek ekarpenak eraman zituzten eta Udala ekarpen horiekin egitaraua atontzen hasi da. Bestak iragartzeko kartel lehiaketa ere martxan dago eta apirilaren 28ra arte lanak aurkezteko aukera bada (oinarriak udaletxean edo sare sozialetan). Aurtengo altxaferoa edo suzuria nork botako duen erabakitzeak aukera ere zabalik dago. Iaz bezala, herritarrek hautaga-

iak aurkeztuko dituzte pertsona horien meriturak azalduta *alkate-tza@doneztebe.eus*-era igorri behar dira. Behin prozesu hau akituta bestetako komisioak izendatutako epaimahai aukeratu du ekainaren 28an nork emanen dien besteek hasiera.

Kultur agenda ekitaldiz betea

Apirilaren bukaeran eta maiatzaren hasieran herriko agenda beteta dago. Apirilaren 21ean Gurasoen Txokoa burutuko da goizeko 11etan

Herrigunean. Apirilaren 22an kinto besta antz izanen dira, apirilaren 23an, aurtengo zinema denboraldiaren bukarrera, heldu den urria arte teloa jeitsiko da. Maiatzaren 3an Institutuen arteko musika topaketa burutuko da. Hitzordu horretan Lekaroz, Bera eta Leitzako ikasleek parte hartuko dute soinu eta erritmo ezberdinak joz.

Maiatzaren 5ean (ortziralea) Udaberriko feria burutuko da eta 6an (larunbatean) Jakoba Rekondoren bisita izanen da (xehetasunak hurrengo alean).

AGENDA

Herri lanak

Poliki poliki herriko espaloiak beste itxura bat hartzen ari dira. Aipatu behar da Elgorriagako zubian balbula batzuk ipini direla uraren kontsumoa hobeto kontrolatzeko eta horniduran hobekuntzak egiteko.

Idazkari berria euskalduna

Udalak 2016an hizkuntza eskakizunak ezarri zituenez, hemendik aitzinera herrira etorriko diren idazkariak euskaldunak izanen dira eta C1eko hizkuntza eskakizuna bete beharko dute.

Galdutako objektuak

Mikel Zabalza Orbaitzetako bizilagunaren heriotzari buruzko *Galdutako objektuak* dokumentalaren ekoizpenari diru-laguntza eman dio Udalak.

Mendi Abesbatza Saray-ren alde

Iruñeko Gayarre Antzokiak ongintzako kontzertu berezia hartu zuen apirilaren 1ean, bularreko minbiziaren aurka lan egiten duen Saray Emakume Taldearen alde. Bertan Burlatako Hilarión Eslava Eskolako Haurren Abesbatzak, San Martin de Unx-eko Abesbatzak eta Doneztebeko Mendi Abesbatzak parte hartu zuten. Emanaldi bikaina izan zen.

Errekako neskak lauko finalean

Lehen aldiz lortu dute lau onenen artean sartzeari Erreka eskubaloi taldeko emakumeek. Finalerdia galdu zuten.

ITUREN



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurtizko joaldunak Lazkao Txikiren estatutaren ondoan.

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 2AN LAZKON

Aurtizko joaldunak Lazkao Txikiren omenaldian

24 urte bete dira Lazkaoko bertsolaria hil zenetik

Arkaitz MINDEGIA

Aurtizko joaldunak Lazkaon joareak jotzen

ibili ziren apirilaren 2an. Joxe Migel Iztueta *Lazkao Txiki* bertsolaria orain dela 24 urte hil zen eta haren omenez ekitaldi aunitz izan ziren, *Lazkao Txiki gogoan* izenburupean. Tartean, Aurtizko joaldunak gonbidatu zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Hamar urteren ondotik Korrika berriz ere herrian

10 urteren ondotik Korrika Iturendik pasa da oraingoan eta giro bikaina bitu zen. 21:20 inguru joaldun eta hartzak lekukoa hartu zieten donamariarrei eta ondotik Pulunpa eskolakoak eta udaletxeakoak ere ibili ziren korrika. Ondotik Aurtizen herrian barna pasa zen eta giro ezin hobea bitu zen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Pulunpa eskolako ikasleek Bilbo eta Donostia bisitatu dituzte

Malerreka eskola ttikiko ikasleekin batera Pulunpa eskolako ikasleek irteera egin zuten martxoaren 31n Bilbora eta Donostiara. Aipatu digutenez ezin hobeto pasa zuten. Orain hurrengoaren zain egonen dira ziurrenik ikasleak!

NATURA → %5,5EKO IGOERA

84.493 lagunek bisitatu zuten iaz Natur Parkea

Abuztuan 15.000 bisitari baino gehiagok

TTIPI-TTAPA

Iaz 84.493 lagunek bisitatu zuten Bertizko Natur Parkea, 2015ean baino % 5,5 gehiagok. Horixe jakinarazi du parkeko patronatuak apirilko lehen astean egin duen batzarrean; Isabel Elizalde Landa Garapeneko, Toki Administrazioetako eta Ingurumeneko kontseilariak har-

tu du parte batzarrean.

Bertizek, abuztuan izan zuen bisitari gehien 2016an, 15.288 lagun. Lorategi historikoa bisitatu zuten bisitari aunitzek, % 58,28k (49.243 lagunek) eta gainerako 35.250 bisitariak basoan ibili ziren.

Aurreko urteetan bezala, bisitari gehienak Nafarroakoak (% 20) eta Euskal Autonomia Erkidegokoak (% 19) ziren; ondotik, Madril, Katalunia, Valentzia, Aragoi eta Errioxa. Bisitari atze-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bertizko jauregiak bertako eta nazioarteko jarduerak hartzeko sendotu nahi dute.

rritarren kopurua berriz, % 3koa izan zen; gehienak Frantziakoak.

BERTIZKO LORATEGI HISTORIKOA

2016an parkean egindako lanei dagokienez, garrantzitsuenak pisten mantentze-lanak

izan ziren, lorategi historikoaren egoera ebaluatzea eta garbiketa eta mantentze-lanak egitea, interes handiko elementu historikoak berreskuratzeko.

2017an lorategiko elementu nagusiak berreskuratu eta garbitu

nahi dituzte. Gainera, indartu eginen dira jauregiaren azpiegiturak eta Jauregi zaharreko baratzeari berreskuratzeko proposamenak ere planteatzen dira eta unitbertsitateekin eta ikerkuntza-zentroekin kontaktua hasiko dituzte.

ETXEBIZITZA BERRIAK DONEZTEBE

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin



KOKAPENA
MOURGUES IBILBIDEA



135.000€tik aurrera
Informa zaitez

- ✓ Lehenengo solairuak TERRAZA-SOLARIUM-arekin
- ✓ Ekialde, hegoalde eta mendebalderantz begira
- ✓ Goi mailako aislamendu termiko-akustikoa eta efizientzia energetiko goren
- ✓ Berogailu sistema mistoa galdara eta AEROTHERMAL energia berriztagarriarekin
- ✓ Trastelekua eta garajea
- ✓ Sukalde ornitua (aukeran)

Lokal komertzialak ere baditugu!



EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | DONEZTEBE

629 951 170



ZUBIETA

KULTURA → APIRILAREN 8AN IRUÑEKO ANAITASUNAN

Nafarroako Bertsolari txapelketan hirugarren izan da 'Itturri'

Euskal Herriko txapelketan kantatuko du

Fermin ETXEKOLONEA

Ander Fuentes *Itturri* herriko bertsolariak Nafarroako Bertsolari Txapelketako bere hirugarren finalean kantatu zuen apirilaren 8an, Iruñeko Anaitasunan. Eta bikain aritu zen gainera, orain arteko sailkapenik onena lortu baitzuen. Hirugarren izan zen eta honela, Euskal Herriko txapelketa nagusian kantatzeko txartela ere eskuratu du.



Malerrekako Eguneko lekukoa

Malerrekako Eguna maiatzeko azken larunbatean izan ohi da. Aurten Urrozen izanen da eta beti bezala Miel Arregiri agindu diote lekuko moduan pasatzen den zurlana lantzea. Normalean herriko ikurra sartzzen du.



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Korrika ttikia eta Korrika handia herritik

Ikaragarria izan zen apirilaren 3koa. Arratsalde txokolatea hartu ondoren, Korrika tailerra egin zen petoak egiteko. Ondoren, lehenengo aldira, herria korrika txikia antolatu zen. Gaueko 9:15 alderako Arrazuko parajea jendetza biltzen hasi zen. Zubietako kilometroa, Udalak eta gazteek erositako, eta Tomas Ibarrek eta Olaia Loiarrek eraman zuten lekukoa. Ikaragarria izan zen ikustea zenbat jende zetozen Korrikarekin. Herriko 6 gazte joareak jarrita egin zuten korrika. Ikaragarria, zoragarria, magikoa.... zer gehiago esan?

Eraso sexistarik ez

Malerrekako Mankomunitatean eraso se-

xisten kontrako kanpainan egiten ari dira eta herri sarreran jarri dute *Era-*

so sexistarik ez da onartzen Zubietan bide-seinalea.

BEINTZA-LABAIEN

KULTURA → BERE AZKEN LIBURUA AURKEZTU DIE

Izaskun Zubialde ikasleekin batera

Beraien ipuina sortzeko aukera ere izan zuten

TTIPI-TTAPA

Beintza Labaiengo eskolan arratsalde berezia izan zuten mar-

txoaren 30ean. Bertan Izaskun Zubialde herriko idazleak *Sumendia baratzean* bere azken liburua aurkezpena egin zuen. Oso gustura egon dira haurrak eta beraien ipuin propioa sortzeko aukera izan zuten. Artista ederrak dira denak!





GIZARTEA → APIRILAREN 6AN GIMNASIA BESTA

Sasoiko daude Arkupeak elkartekoak

34 bazkide elkartu ziren Doneztebeko kirolegian

Fernando ETXEBERRIA

Kirola eginez, sasoi-ko daudela erakutsi zuten beste behin ere Arkupeak Elkartekoek. Apirilaren 6an ospatu zuten gimnasiaren eguna ospatu Doneztebeko kirolegian eta Leitza, Doneztebe, Elizondo eta Urdezubitik etorritako 34 kirolariak erakustaldi polita eskaini zuten Patxi Chocarroren gidaritzapean.

Astero eskaintzen dituzte Patxiyoga saioak lau herri horietan eta Doneztebeko saioa hasia uretik, egiten duten lan-

ketaren garrantzia aipatu zuten: «Umeak gure potentziala garatzea izaten da helburua. Orain adinean aitzinera eginda, ez sufritzea ere bada asmoa, esfortzurik gabe zaintzea, gizatasunean hazi eta naturaltasuna lortzea. Yogan etengabeko aldaketa lantzen dugugu, klase bakoitza desberdina izaten da. Arreta, malgutasuna landu eta gure osasun egoerak hobera egin du».

Erakustaldia bukatutakoan, Jose Angel musikariak alaituta, kalejira egin zuten Santa Maria jatetxeraino. Bertan bazkari legea egin eta 19:00ak arte kirola egiten jarraitzeko modua izan zuten, dantza eta dantza gelditu gabe.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Doneztebeko gimnasia egunean parte hartu zuten 34 kirolariak.



UTZITAKO ARGAZKIA

347 bazkide bildu ziren Zarautz eta Aginagako irteeran

Martxoaren 30ean, udaberriko giro bikaina izan zuten Zarautz eta Aginagako irteerara joan ziren 347 bazkideek. Hainbeste jende elkartuta, zazpi autobus behar izan ziren eta aparkatzeko garaian horrek zenbait gorabehera eragin zituen. Zarautzen alde zaharra bisitatu eta malekoian bueltaxka bat emateko aukera izan zuten eta batzuk Argiñanoren jatetxea ere bisitatu zuten hamaiketako egiteko. Handik Aginaga sagardotegira joan ziren eta bapoz jan eta edan ondotik, dantzaldiaz gozatzeko aukera ere izan zuten bi orduz. Datorren urtean, sagardotegiz aldatzeko asmoa dago. Dagoeneko hitz egin dute jabeekin eta 400 personendako tokia eta dantzalekua ere badituztenez, guztientzat erosoagoa izanen dela uste dute antolatzaileek.



Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAJA IREKIA

www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

ARESO

AISIALDIA



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Korrika ttikian parte hartu zuten Nazabal eskolakoek.

KULTURA → APIRILAREN 7AN

Korrika ttikia egin dute eskolako haur, guraso eta irakasleek

Udalak erositako kilometroa ere herritar ugari egin zuten

Juana Mari SAIZAR

20. Korrika ez zen herri ingurutik pasa baina Nazabal eskolako haur, guraso eta irakasleei esker Korrikako giro berezia nabaritu zen herrian. Apirilaren 7an egin zuten Korrika ttikia eta lekukoa elkarri emanenez, herrian barna korrika saioa egin zuten. Udalak erositako kilometroa, berri, Atallu amaieran Lizartzarako bidean egokitu zen. Goizeko ordu ttikitian izanagatik, herritar ugari egin zuten korrika.

ITXASO BIGARREN LEKUNBERRIKO LEGOAN

Itxaso Onsalo herritarra arpana kontuentzari aipatu izan dugu baina oraingoan, lasterka ere ederki moldatzen dela erakutsi du. Lekunberriko Legoa parte hartu eta bigarren emakumea izan baita.



ARGAZKIA: ANA GOÑI

Aitzurrak hartu eta zuhaitzak landatzera!

Udaberrian, zuhaitzak landatzeko ohitura dago aspalditik herrian. Haurrek eta gurasoek, aitzurrak hartu eta beharra dagoen tokian egiten dituzte landaketak. Aurten, apirila hasieran bildu ziren eta Illunben landatu zituzten adaxka berriak. Ondoren indarrak berreskuratzeko merendua izan zuten.

XABITXO ETA MUXARRA ARBIZUKO 4X4 TRIALEAN

Xabier Eraso eta Xabier Alustizak Arbizuko 4x4 Trialean parte hartu zuten apirilko lehenbiziko asteburuan. Gisa honetako txapelketa batean aritzen diren lehenbiziko aldia izan

zen eta sailkapeneko lehenbiziko postuak urrutiko xamar geratu bazitzaizkien ere, ikuskizun polita eman omen zuten.

Ba al zenekien

Emakume-afaria egitekoa zela Pazko larunbatean. Pake Toki elkarte biltzekoak ziren eta dotore jantzita agertzeko deia egin zuten antolatzaileek. Gustura ikusiko guke argazkia...

8.000 ALE BANATUZ

Asialdia eta gastronomia gida argitaratu du aurten ere TTIPI-TTAPAK

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bidasoa, Mendialdea eta Xare-tako Asialdia eta Gastronomia Gida argitaratu berri du Ttipi-Ttapa. Aurreko edizioetan baino informazio zabalagoarekin, Leizaldea eta Urumealdeko informazioa ere sartu baita bertan lehen aldiz. Inguru honetako 130 bat jate-txe, ostatu, komertzio eta aisialdirako enpresen eskaintzaren berri ematen da gidan 90 orrialdetan (azkeneko edizioan baino 30 gehiago), bakoitzak eskaintzen dituen berezitasunak eta zerbitzuak azalduz hiru hizkuntzatan, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. 8.000 ale argitaratu dira, ohi baino 1.000 gehiago, turistak ibiltzen diren tokietan banatu direnak, jendeak har dezan eta bazkaltzeko edo afaltzeko plana egin, bertako produktuak erosi, aisialdiko aukera ezagutu eta ostatu bila dabiltenentzat lagungarri izateko.




KULTURA → APIRILAREN 12AN AURKEZTU DU LIBURUA

‘Goizuetako dokumentu zaharrak’ argitara eman ditu Patziku Perurenak

1324 eta 1918 urteen arteko agiriak eman ditu ezagutzera

TTIPI-TTAPA

Goizuetako dokumentu zaharrak (1324-1918) liburua idatzi du Patziku Perurenak eta argitara eman du Pamiela argitaletxearekin. Apirilaren 12an egin zuten aurkezpena Iruñean eta Leitzaan bizi arren, herriko Aitasemegi auzoan 1959an jaio eta hazi zen idazle emankorak aipatu zuenez, «badira liburu honetan Goizuetaren historian sekulako inportantzia izan duten dokumentuak, eta herria maite duen edozeinek irakur litzaieke, batez ere, bere ibi-



lera ugarian nolatsu gobernatua izan den ikasi nahi duenak». Dene-

tatik baldin badu ere, etxea eta jendea du bihotz eta ardatz Goizue-

tako dokumentu zahar-rak liburuak, «nolabait esan, herria jendez poztera baitator, etxez etxe eta menderik mende, goizuetar bakoitzaren ikasminai esker, ardo zaharra bezala ontzera», Perurenaren esanetan.

Goizuetan ezagutzen mendi buelta

Goizuetan ezagutzen mendi buelta antolatu du Umore Ona elkarteak apirilaren 23an, igande goizeko 8etan plazaatik abiatuta. Benaisoro, Enekoelorri, Motzan borda, Ilarbita, Arramalta eta Espideko soroan barna, berriz ere herri- bueltatuko dira ibiltariak, 16,8 kilometroko ibilbidea osatu ondotik. Bost bat ordutan egiteko bidea omen da.

Zarauzko Primo txakolindegira irteera

Apirilaren 29an, Zarauzko Primo txakolindegira azken urteetan ohikoa bihurtu den irteera antolatu du Umore Ona elkarteak.

Larunbat goizeko 10:30ean aterako da autobusa eta txakolindegian bazkalduko dute. Bertara joan nahi duenak Amaia kafetegian izanen du horretarako aukera apirilaren 23ra arte, momentuan 30 euro ordainduta. Gehie- nez 25 laguntzako to- kia dago txakolindegian, beraz, izena lehen- bailehen ematea kome- ni da. Autobusean bu- eltatzeko ordua den- artean erabakiko dute egunean bertan.

MAIATZAREN 20AN

IV. Goizutrail lasterketarako izen ematea zabalik dago

TTIPI-TTAPA

Aurten ere bi ibilbide izanen ditu aukeran Goizutrail mendi lasterketaren laugarren edizioak maiatzaren 20an, bata 10 km.koa (631 m.ko desnibela) eta bestea 25 kmkoa (1.636 m. desnibela).

Herriko plazan hasiko dira bi ibilbideak goizeko 9etan, Aitasemegi auzora igoko dira korrikalari guztiak xenda estu batetik, 680 metro- tara dagoen Eneko Elorriko bizkarrera igoko dira, eta hemendik herrira jeitsiko dira Espideko sorotik pasatuz, ibilbide laburrekoak.

25 kilometroko ibilbidea aukeratzaren dutenek, ordea, Alkainzuriain auzotik Mandoegiko gailurrera igo beharko dute, 1.045 metrora. Ondoren Mandoegiko gailurretik jarraituko du ibilbideak harrespilen artean eta bukatzeko berriz ere herriko plazara jaitsiko da. Izen ematea zabalik dago www.herrikrosa.eus webgunean bezpera arte eta egunena berean plazan ere egin daiteke.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Korrika Txikian parte hartze handia

Aurtengoan ez da herritik igaro BatZuk lelopean Otxandio eta Iruñea lotu dituen 20. Korrika. Baina horregatik ez dira geldi egon herritarrek eta apirilaren 8an Korrika Txiki ikusgarria egin zuten herriko kaleetan zehar. Udalak, gazteek, Umore Onak, eta herriko hainbat eragilek kilometroa erosi, petoa jantzi, leku-koa hartu eta kalez kale ibili ziren, larunbat goizeko giro ederrak lagunduta. Ea hemendik bi urtera berriz ere ibilbide nagusia herritik igarotzen den eta bien bitartean, euskara hitzetik hortzera erabiltzen segitzen dugun!

LEITZA

GIZARTEA → 40 ABELTZAINEN PARTE HARTU DUTE BILERETAN

Larreetakoz auzolan plana osatu dute Udalak eta abeltzainek

Leitzelarrea, Aizan eta Aritziko auzolanak biltzen ditu

JM BARRIOLA

Leitzako herri-lurretako aprobetxamendua arautzen duen ordenantza jasotzen du larreak egoera onean mantentzeko lanak auzolan bidez egiten direla. Egin beharreko auzolana herri-lurretara eramaten diren azien kopurua eta motaren arabera zehaztuz. Azken urteetan, ordea, auzolan horien antolaketa eta koordinazioan zenbait hutsune egon direla aitatu diete abeltzainek Udalarari eta horri irtenbidetarako emateko konponbide bila hasi da Udala. Hala, aurtengo erronka izan da Larreetako batzorde bakoitzak (Leitzalarrekoa; Aizanekoa eta Aritziko mendikoa) bere auzolan plana egitea eta deialdi eta informazioaren koordinazio-sistema bat adostea.

2017KO PLANGINTZA

Hori lortzeko lau bilerak egin dira. Lehenengo martxoaren 24an batzorde guztiekin batera eta ondoren batzordeka beste 3. Denera, 40 abeltzainek parte hartu bileretan eta bertan adostu dute larreetako urteko auzolan plana egina. Kronograma batean gutxi gorabehera urtarok bakoitzean egiten diren auzolanak jaso dira eta



ARGAZKIA: MIEL MARI ELOSEGI

Herri-lurretako larreak egoera onean mantentzeko auzolana ezinbestekoa da.

auzolanetan parte hartzen duten abeltzainen datuak eta erabiltzen den materiala jasotzeko fitxa sortu da.

AUZOLANAK KOORDINATZEKO SISTEMA

Bestalde, udala eta batzordeen artean auzolanak koordinatzeko sistema ere adostu dute. Lehenbizi, batzorde bakoitzak bere auzolanak erabakiko ditu eta Mendi zinegotziari jakinaraziko diote zein auzolan, nola eta zein material erabiliko dituzten auzolan bakoitzean.

Batzordea bera izanen da larreetako deialdi egiten duena eta parte hartzaileen zerrenda bidaliko du udalera aseguruetan alta eman ahal izateko. Behin auzolana eginda, bertan egon diren auzotarren zerrenda bidaliko dute berriz ere Udalera auzolanarekin nork bete duen jakin ahal izateko.

FLASH

Barazki saskiak eskatzeko aukera

LeitzEko kontsumo taldeak 2017-2018 barazki saskiaren denboraldia martxan jarri du. Interesa dutenek taldeko kideekin harremanetan jarri edo mezu bat idatzi behar dute info@leitzekokt.eus helbidera. Ongi jan eta animatu!

Kale neurketak egiteko boluntarioak

Euskararen erabilera kezkatzen zaitu? Leitzako Udalak auzolan txiki bat proposatu du eta bi bolondres bilatu nahi ditu lantxo hori aurrera emateko. Parte hartu nahi duenak leitza@leitza.eus edo 617385622 telefonora deitu behar du.

MAIATZAREN 19AN FILMEN EMANALDIA ETA SARI BANAKETA

VII. film laburren lehiaketa antolatu dute Atekabeltzen

TTIPI-TTAPA

Kamera atzean, aurrean edo ikusle gisara, film laburrekin gozatzeko proposamena egin dute Atekabeltzen. VII. film laburren lehiaketa antolatu dute eta maiatzaren 19an izanen da lehiaketara aurkeztutako la-

nen emanaldia eta sari banaketa. Gehienez 15 minutuko lanak aurkez litezke eta lan guztietan Ateka eta 12 kontzeptuak agertu behar dute. Lanak egunean bertan aurkez litezke edo aurrez bidali atekabeltz@gmail.com helbidera.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Kantu bazkari jendetsua

270 lagun bildu ziren Erleta eskolako jangelan Aurrerako dantzari taldeak antolatu eta Anjel Mariaezkurrena gidatutako kantu zaharren bazkarian. Franzisko Santxotena eta Aitor Ibarra musikariak, Jaione Olazabal eta familia eta Nahia eta Markel Barriola abeslarien laguntzarekin kantu, dantzan giro bikaina izan zen. Irrizirik ere ez zen falta izan. Iluntzeko 9ak arte luzatu zen pestak.

GIZARTEA → APIRILAREN 8AN

400 parte hartzaile baino gehiago bildu ditu herri krosak

Aitor Mibenza eta Maialen Muñozek irabazi zuten proba nagusia

JM BARRIOLA

Apirilaren 8an 39. edizioa bete zuen Aurrera Kirol Elkarteak antolatzen duen herri krosak. Eguraldi beroari aurre eginez, 400 parte hartzaile pasatxo aritu ziren lasterka, horietatik erdiak baino gehiago haur eta gaztetxoak. Helduek, iaz estreinatu zuten ibilbidea



ARGAZKIA: E.IRAOLA

laz baino emakume gehiagok parte hartu zuten krosean, gizon eta emakumeen portzentajea orekatuz.

osatu behar izan zuten eta 4,5 km edo 9 km-ko lasterketa izan zituzten

aukeran. Aipatzekoak dira herritarrek egindako marka bikainak: ibilbide

laburrean lehenbiziko hiru gizonezkoak herri-tarrak izan ziren eta ibil-

4,5 KM	
1	Marta Muñoz
2	Arantxa Atxukarro
3	Estibaliz Gezla

4,5 KM	
1	Gorka Bermejo
2	Beñat Saralegi
3	Oskar Ariztimuño

9 KM	
1	Maialen Muñoz
2	Eguzkiñe Zabaleta
3	Nagore Arizaga

9 KM	
1	Aitor Mibenza
2	Oscar Primo
3	Asier Latxeta

bide lizean bigarren postuan bukatu zuen emakumezkoa, Eguzkiñe Zabaleta leitzarra izan zela. Aurten gainera, iaz baino emakumezko gehiagok parte hartu dute, gizon eta emakumeen portzentajea orekatuz.



BEROPEL
egurrezko pellets
ECHEVESTE HNOS. SL



ES 025

T. +34 948 637 232 • +34 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax + 34 948 637 250

info@echevestehermanos.com

www.echevestehermanos.com



BAZTAN

GIZARTEA → 2015EAN ARGITARATUTAKO SENTENTZIA ZUZENDUZ

Elizondoko Casinoren lurra herriarena dela dio epai batek

**Pertsonaia**

Elurre IRIARTE BAÑEZ

Literaturako
Baztan hizpide
liburu berrian

Landa eremua eta Baztan literaturak kontatua liburuxka argitaratu eman du arizkundarrak, Metaziriren eskuetik. Liburuxka 3,50 eurotan salgai jarri dute Arizkungo Dolaetxea eta Lupen, Erratzuko Altxuko dendan eta Zubipuntan, Elizondoko Axularren, Oronozko Oskorin, Iruñeko Karkiri eta Katakarak-en eta Donostiako Hontzan. Baztango paisaia ez dela natura bakarrik dio egileak, «paisaia guk egiten dugu, guk idazten dugu».

2015eko sententzia zuzendu du Nafarroako Auzitegi Nagusiak udalaren alegazioari arrazoi emanaz



UTZITAKO ARGAZKIA

Azken urtean lortutako konposta banatu du Udalak

Urtean zehar auzo konposta guneetatik atera eta bertatik jendeak eraman ez duen konposta Loizun bilduz joan da Udala. Apirileko lehen astean deialdi berezia egin zen jendeak ongari organiko hau bertatik hartzeko aukera eskainiz. Txanda ezberdinetan 50 bat lagun hurbildu ziren etxeko loretarako edota baratzetarako konpost eske eta Tasubinsa enpresaren laguntza izan zuten.

izateko tramitea bertzerik ez zen izan. Halaber, ebazpenak erraten du, orduz geroztik ez dela deusik erakusten duenik luraren jabegoan aldaketa eman denik eta, are gehiago, 2001ean elkarteak Udalaririk lurrerik

erosteko proposamena egin ziolarik hori bera erakutsi zuela, hau da, lurra beraiena ez zela. Era berean, lurra Udalaren izenean eskrituraturik Casino elkarteak haren kontra egin ez zuela ere aipatzen

du, ondorioztatuz, kontra ez egiterakoan, lur-raren jabegoa beraiena ez zela aitortzen zutela. Sententziaren aurka Casino elkarteak Espainiako Auzitegi Gorenean kasazio-errekurtsoa paratzeko aukera du.

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Auzitegi Nagusiak aste honetan argitaratutako ebazpenean Elizondoko Casino elkarte dagoen lurra baztandarrena dela erran du. Modu horretan, 2015ean argitaratutako sententzia zuzendu eta Udalak paratutako errekurtsioari arrazoia eman dio, bidenabar erranez, Casino elkarteak ezin izan duela frogatu eraikina dagoen lurra beraiena denik. Denbora guzti honetan herritarren ustea izan da Casinoko lurra baztandarrena zela, baina 2014. urtean elkarteak udala auzitegiatarat eraman zuen lurra beraiendako eskatuz. Udala bai aitzineko legegaldian, bai honetakoan ere, baztandarren interesen defentsan aritu da eta, azkenean, auzitegiek, hala ebatzi dute. Sententziak aipatzen duenez 1861ko azaroaren 2an Baztango orduko alkateak eta Circulo de la Unión elkartearen artean sinatutako eskrituran luraren jabegoa ez da transferitzen; zegokion kanona ordainduz, eraikina eraiki ahal

PARTE HARTU HYPER SIMPLYKO ZOKKETAN CLUB SIMPLY TXARTELAREKIN ETA IRABAZI...



2
100 EUROKO 5
EROSKETA
TXARTEL*

1 HYUNDAI
I10 AUTOA

3
BERTAKO
PRODUKTUEKIN
OSATUTAKO
3 SASKI



*ARROPA DENDAN
ERABILTZEKO

GIZARTEA → BIGARREN URTEZ SEGIDAN BARATZEA LANDUKO DUTE BI IKASTETXEETAN

'Baratze Hezitzailea, herriko haurren baratzea' proiektua abian Elizondon

Elizondoko eskolako eta Baztan Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak ariko dira

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 6tik aitzinera, bigarren urtez segidan, Elizondoko Herriak utzi duen lursail batean baratze bat lantzen hasiko dira herriko bi ikastetxeetako hainbat haur Udaletzeko langile eta teknikarien laguntzaz.

Proiektu honetan Elizondoko Eskolako 2. mailako eta Baztan Ikastolako 4. mailako gelek parte hartuko dute, 34 haur, 2 maistra eta laguntzeko prest leude-



UTZITAKO ARGAZKIA

Basaburuako kadete mailako taldea txapelkun sokatiran

Nafarroako Herri Kirol Jokoetako finala jokatu zen apirilaren 2an Etxarri Arantzen. Eskualdeko ordezkaritza izan zen kategoria guztietako finaleran eta emaitzarik aipagarriena, Basaburuak kadete mailako sokatiran lortu zuen txapela izan zen. Haur mailan laugarren izan ziren Basaburuako tiralariak. Proba konbinatuan berriz, haur eta kadete mailan, bietan txapelkunorde.

ken guraso guztiak.

Jarduera hezitzaile

honen bitartez auzola-

na, elkar trukea, natura

eta ingurugiroa, aitatxi-

amatxien ezagutzak,

hondakinen kudeaketa eta konposta, herriko azoka eta gure ingurune hurbilari loturiko bertze hainbat eduki pedagogiko interesgarri landuko dituzte.

Lehen ekintza apirilaren 6an, ortzegun goizeko 9:45an burutu dute bi gelak elkarrekin baratzerara joan dira, bertan Baztango Udaleko zabor teknikariak konpostaren inguruko saio bat eman du, baratzearen banaketa egin dute eta merkatua ezagutzera joan dira. Hemendik aitzinera, gela bakoitza hamabortzean behin joanen da.

Apirilaren 6an, bi gelen arteko hitzarmena sinatu dute, batak bertzearen baratzea zainduko du joaten ez diren aste horretan.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com



BETIKO

BETIKOn LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU eta INSTALATZEN DITUGU



**6 kamara 82 mm-ko profila
Merkatuko isolamendurik
hoberena.**

A +++



* 70 mm

Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak emanen ditu LEIHOAK eta KONTRALEIHOAK aldatzeko.

ZUK NAHI BADUZU GUK EGINEN DITUGU GESTIOAK



BAZTAN

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 21EAN ELIZONDON

Ahari onenak lehiatuko dira aurten ere Udaberriko Ferian

Mutur gorri eta mutur beltzek jasoko dute saria 19. edizioan

TTIPI-TTAPA

Aziendak, artisau lanak eta etxeko produktuak karrikara ateratzeko, apirilaren Baztanen egiten den hitzordu nagusia gainean da. Apirilaren 21ean, ortziraletan, egiten da Udaberriko Feria Elizondon, Udalak eta Cederna-Garalur erakundeak antolatuta.

10:00etan azienda feria izanen da Merkatu Plazan. Ahari lehiaketaren hemeretzigarren edizioa ere egiten da. 10:00etatik 13:30era artisautza eta bertako produktuen azoka paratuko da Merkatuko Plazan. 11:00etan txistulariak ariko dira karrikaz karrika. 11:30etik 13:30era haurrendako taile-rraizanen da. 12:00etan Baztango dantzari tti-kiek saioa eskainiko dute, 12:15ean urteko ardi gasnaren mozketa ekitaldia eta 12:30ean bertako produktuen dastaketa. 13:00etan ahari lehiaketaren sari banaketa egiten da Merkatuko Plazan.

XIX. AHARI LEHIAKETA

Ahari Lehiaketaren 19. edizioa egiten da aurten. Oinarrietan aipatzen denez, Baztango latxa arrazako buruak parte hartzen ahal dute eta sariak bi ataletan banatuko dira: hi-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Ehunka lagun bildu dira esne sektorearen defentsan

Landa eremu bizien eta nekazaritza iraunkorraren bidean, esne sektorea ere bizirik behar dugu goiburupean manifestazioa egin zen apirilaren 1ean Elizondon, Baztan-Bidasoaldeko hainbat sindikatu, gizarte eragile, elkarte eta erakundeak deituta. Ehunka lagunek parte hartu zuten euripean, behiak aitzinean zituztela. Aipatzekoa da azken 25 urteotan behi-esplotazioen %80a desagertu dela Baztanen.

ru mutur gorriendako eta bertze hiru mutur beltzendako. Bi kasuetan, saria berdina izanen da: lehengo saria, kaiku bat eta 75 euro; bigarren saria, 50 euro eta hirugarren saria, 30 euro.

Ba al zenekien

Bazken aldizkatze ikastaroa eskainiko dutela apirilaren 29an Anizko Jauregian Aitor eta Mikel Azkaratek, Hazitik Hozie elkarteak antolatuta

Parte hartuko duten artzainek 15 euroko dieta jasoko dute garraiorako eta ahari buruak

aurkezten dituzten artzainei bazkaltzeko gonbidapena ere luzatuko zaie.

FLASH

Haurrendako antzerkia

Liburuaren Eguneke ospakizunen baitan, Didau antzerki faktoriak *Beldartxo Jatuna* haurrendako antzerkia eskainiko du hilaren 26an, asteazkenean 17:00etan Herri Liburutegian. Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Nafarroako Gobernuaren 2017 Arte eta Kulturaren laguntzarekin.

Baztango artisauak Erratzun

Baztango artisauak bertako produktuak ikusgai eta salgai jarriko dituzte apirilaren 29an, larunbatean 10:00etatik 14:00etara Erratzun.

Institutuetako musika kontzertua Lekarozen

Lekaroz, Doneztebe eta Leitzako BHIko ikasleek kontzertua eskainiko dute maiatzaren 2an, asteartean 17:00etan Lekaroz Institutuko kiroldegian.

Xabaltx Zubipuntan

Xabaltxek emanaldia eskainiko du apirilaren 21ean, ortziraletan, 23:00etan Erratzuko Zubipuntan.

zergalan | asegi
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

GIZARTEA → APirilAREN 3AN

Jubilotokia ireki dute Arizkunenean

Astelehen eta asteazkenetan 10:00etatik 13:00etara eskaintzen da

TTIPI-TTAPA

Jubilotokia adineko jendea elkartzeko eta sozializatzeko tokia da, profesional batek gidatua eta girotua. Apirilaren 3an jarri dute martxan Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxeko lehen solairuan, liburutegi zaharrean, Udalak onartu eta Arkupeak eta Bidelagun elkarteek lagundutako proiektua.

Jubilotokira hurbiltzen direnak konpainian egon dira, ongi artatuak eta lagunduak. «Toki aproposa da landa eremuko bakartasun eta isolamendu-egoerari inor egon ez dadin, elkartzeko eta parte hartzeko aukera bikaina baita. Finean, Jubilotokiaren bidez, harreman sozialak bul-

katuko ditugu», aipatu dute aurkezpenean.

Elizondon izanen du hasiera proiektuak, baina aitzinerago bertze herri batzuetara hedatzeko asmoa ere badute. Aipatu bezala, Jubilotokiaren egoitza Arizkunenean egonen da, lehen solairuan (liburutegi zaharrean). Eraikina igogailua du, hortaz, erabiltzaileak aise moldatuko dira. Jubilotokia astelehen eta asteazkenetan izanen da, 10:00etatik 13:00etara. Eginen diren jardueren baitan honakoak landuko dira: kalkuluaren bidez burua aktibo mantendu, arreta, entretenimendua eta ongi pasatzea, gimnasia fisikoa eta mentala, eskulanak, mahai-jokoak...

Amaia Iriondo izanen da proiektua bideratu duen profesional eta arduraduna. Parte hartu nahi dutenek ondorengo telefonoan izena eman beharko dute: 659 849 570.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Argain eta Garate izan dira frontenis txapelketako irabazleak

Apirilaren 1ean jokatu dituzte Elizondoko Baztan udal pilotalekuan emakumezkoen zazpigarren frontenis txapelketako finalak. Lehen mailan, Iruritako Edurne Argain eta Nuria Garate suertatu dira txapelak, finalean Enara Lasarte eta Oihana Bergarari irabazita. Bigarren mailan, Iera Agirre eta Belen Agerrebere izan dira txapelak, finalean Belen Cebrian eta Ainara Urrizari irabazita.

50-69 URTE BITARTEKO HERRITARREI ESKUTITZA ETA KIT-A

Koloneko minbizia prebenitzeko kanpaina abian

TTIPI-TTAPA

Egun hauetan kolon minbizia prebenitzeko kanpaina abiatu da Baztanen. Nafarroako Gobernuaren Osasun Publikoaren institutuaren ekimenez eta Baztango Udalaren laguntzarekin ondoko egunetan 50-69 urte bitarteko herritarrei eskutitza eta testa egiteko kit-a etxerat ailegatuko zaie. Testa egitea erraza da eta norberak bere etxean egiten ahal du; ondotik Elizondoko osasun etxean utzi beharko du.

Koloneko minbizia prebenitzeko kanpainak, bularreko minbizia pre-

benitzekoaren gisa berekoa izan nahi du, arriskuan egon daitezkeen herritar guztiengana iritsiko dena eta interesdunen parte hartze handia izanen duena. Koloneko minbizia tumorarik ohikoenetako bat da Nafarroan eta tenorez detektatzen bada, kasuen %90 baino gehiago sendatzen ahal da.

Modu horretan, aurtan, Baztanen lehenbiziko kanpaina eginen den honetan, arrisku adinean diren herritarrei kanpainan parte hartzeko eta laguntzeko deia egin nahi die Udalak.

LARRALDEA
eta
LINDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bititza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baseri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

ZUGARRAMURDI

EUSKARA → APIRILAREN 3AN

Herriko lasterkalariek alai eta gogotsu egin dute Korrika Erratzu aldean

Herrian Korrika Ttikia ere egin zuten eta Korrika Kulturalaren baitan hainbat ekitaldi izan ziren ondoko larunbatean

Josebiñe eta Koro

Aurten ere alai eta gogotsu ibili da Zugarramurdiko jendea Korrikan. 20. edizio honean euskararen aldeko lasterketa herritik pasa ez bada ere, zugarramurdiarrek dirua eman zuten Erratzu aldean kilometro bat erosteko. Eta dirua eman bakoarik ez, *BatZuk* lemarekin bat egin eta lasterka ere ibili ziren apirilaren 3an Baztanen barrena. Herritarren artean zen Ruper Ordorika abeslari ezaguna ere.

Herrian korrika egiteko aukerarik ere ez zen falta izan. Korrika Ttikia antolatu zuten;

eskolako ikasleek aterpean zeuden hurrekin batera bertan korrika egin zezaten. Bi urte itxaron beharko ditugu berriz ere Korrikan parte hartzeko. Zapatilak armairuan gorde beharrean, has gaitezen gaurtik entrenatzen!

KORRIKA KULTURALA EKITALDIZ GAINEZKA

Joan den apirilaren 8an, larunbatean, Zugarramurdin antolatutako Korrika Kulturalak ere arrakasta nabarmena izan zuen. Herriko taldea eta Ruper Ordorika igo ziren taula gainera eta bazkariaren ondoren giroa gehiago alaitzeaz arduratu ziren. Bazkal aitzinean, berriz, bote luzean aritu zen herriko taldea, Etxalar, Sara eta Senperekoe-kin batera.

Lapurreta herrian

Apirilaren 5ean Lapurreta izan zen Ansalas ostatuan. Goizeko 5ak aldera gertatu omen zen; eta atzeko atletik palanka baten lagun-



tzaz sartu ei ziren barrerana. Tabakoa eraman zuten, eta bertan zeuden poltsa eta kutxan zegoen diru gehiena ere hartu zuten. Dirudienez, barruan zegoen dirua hartu ondotik poltsa eta kutxa plaza inguruan bota zituzten. Han atzeman zituzten eta hutsik.

Salaketa emana izan da eta Guardia Zibila gertatutakoa ikertzen ari da. Herrian eta herri-inguruan ari dira ikerketa egiten.



ARGAZKIA: HELENA XURIO

Korrika herritik pasatzen ez zenez, Erratzu aldean erosi zuten kilometroa herritarrek. Gustura ibili ziren Baztan aldean euskararen alde korrika. Korrikalarien artean zegoen Ruper Ordorika abeslari ezaguna ere.

JATETXE-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarineatik
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO
 T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantxarinea 31712 URDAX Ibardin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

tabac Landibar restaurant super tabac cadeaux maroquinerie

GIZARTEA → FARPLUS ENPRESAK ANTOLATUA

Pablo Irazoki saritu dute “Botikaria egun batez” lehiaketan

DBHko ikasleek Aste Txurirako botikina prestatu zuten

Iñigo IMAZ

Farplus-ek ‘Botikaria egun batez’ lehiaketaren 1. Edizioa antolatu du. Farplus-en xedetako bat, botiketaren eskaintzen den zerbitzua herritarrei ezagutaraztea da. Oraingo honetan eskolari zuzendu dira, ikasleek estimulu positibo baten bidez, osasun eremua ezagutzeko. Honela, Farplus-ek Nafarroa osorako DBHko ikasleen artean antolatutako lehiaketan parte hartu zuten Urdazubi-Zugarramurdiko eskolako ikasleek eta Pablo Irazoki Olaizola urdazubiarrak bigarren saria irabazi zuten.

Helburua, ikasleen autonomia sustatzea izan da euren irteerarako botikina prestatuz eta lehen sorospenei buruzko oinarrizko ezagutzak eskuratuz. Horretarako, lehen sorospenerako botikin bat prestatu behar izan zuten DBHko ikasleek. Martxoan eskolarekin

eskiatzera joatekoak zirenez, Aste Txurirako botikina prestatu zuten. Honela, produktu bakoitz eta bere argibideak aztertu behar izan zituzten, istripu bat gertatuz gero arduraz jokatzeke. Honekin batera, produktuan agertzen diren argibideak jarraitzeak duen garrantzia hausnarketa egin behar izan zuten.

Erran bezala, lehiaketa honen lehen edizioan Urdazubiko Pablo Irazoki Olaizola ikasleak, bigarren saria irabazi zuen. Ikasleak gustura aritu ziren beraien lanak egiten eta eskerrak eman nahi izan dizkiete Miren Oiartzabal-ilean hau burutzeko emandako laguntza guztia-gatik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pablo Irazoki eta Urdazubi-Zugarramurdiko eskolako DBHko bertze ikasleak.



Pertsonaia
Maddi HARDOY

100 urte ospatu ditu Berako Zahar Etxean

Eskualdetik urrun sortu zen Maddi Hardoy Gurrutxaga «San Juan de Capristanon, Kalifornian, 1917ko apirilaren 8an. Aita eta ama harat ganak ziren nire anaia zaharrena Juanito aitaxi-amaxiekin hemen utzita». Maddik bortz urte zituenean bueltatu ziren Euskal Herrira «Juanito eta aitaxi-amaxiekin elkartu ginen Urdazubiko Alkerdi auzoan, Maltzatenean». Eta bertan sortu ziren bertze sei anai-arrebak «denetar zortzi ginen eta ni bigarrena nintzen». Hogei urterekin ezkondu zen Alfontxo Goienetxerekin eta «ezkon-

duz geroztik, Alkerdin eta Zugarramurdin bizitu izan da. Bertan osatu zuten familia, «6 seme-alaba izan ditut: 4 seme eta 2 alaba. 7 biloba, eta haietatik 10 birbiloba». Azken bortz hilabetetan Berako San Jose Zahar Etxean bizita da eta bertan ospatu du mendeurrena ere. Berako Herriko Etxeko ordezkariak lore-xorta eta orogarria eskainizioten, Julen Zelaieta bertsolariaren eta helduen abesbatzaren emanaldiaren ondotik, meza aditu zuten. Egun go-goangarria izan zen Maddirentzat eta familiarentzat.

NELI YANCI
BIZI eta OSASUN AHOLKULARIA
ASEGURU MOTA GUZTIAK
C007272664074J

GENERALI
Santiago 72B 31700 ELIZONDO
T./F. 948 580 504 • 649 947 182
generalielizondo@hotmail.com

OSASUN ASEGUURUAK
Itxaron zerrendarik gabe, zuk erabakitzen duzunean

- Klinika hoberenak (Unibersitaria, Quirón, Poliklinika,...)
- Espezialitate guztiak, txekoak, hospitalizazioa, etb... barne
- Autonomoak %100 desgrabazioa IRPFen

ESKAINITZA BEREZIA
Abendu arte %30rainoko deskontuak
Adibidea: 30 urteko Gizon/emekumea (23,14€tik/hilean) Aukera desberdinak

Beragiratu aukera gehiago gure web orrian
corneliayanciberrueta.seguros.generalis.es

SARA

EUSKARA

KIROLA → MAIATZAREN 7AN SARA OINEZ

Mendi ibilaldia antolatu du Har Hitza Elkarteak

28 kilometroko luzea eta 1460 metroko demaila izanen ditu

Joana GERENDIAIN

Heldu den maiatzaren 7 an, igandearekin, Har Hitza elkarteak mendi ibilaldi bat antolatzen du. Ibilaldiak 28 kilometroko luzera eta 1460 metroko demaila izanen ditu. Ibiltariak plazatik abiatuko dira Iturri ederretara igotzeko, gero Atekaleun, ondotik Lizuniagara jautsi, Lizarrietara upatu, eta bukatzeko Larrea deitutako lekutik pasatuz plazara itzuliko dira.

Izen-emateak egunean berean egingen dira goizeko 6etatik 7:15 arte, 10 euroko parte hartzea galdegina izanen da, abiatzeak 07:00 eta 07:30 artean egingen dira. Ibilaldian zehar jateko eta edatekoak banatuak izanen direla aipatu dute antolatzaileek.



ARGAZKIA: SARAKO IZARRA ERRUGBI TALDEA

Final erdia gainditu ondotik, orain finalerako txartela daukate basurdeek.

Sarako basurdeak

Gora beherak eza-gutu arren, Basurdeak 4. mailako txapelketako finalerdietarako sailkatu dira. Joaneko matxa apirilaren 2an jokatu dute Sauveterren eta nagusi atera dira 22-20. Itzultze matxa Saran iragan da apirilaren 9an. Egun horretan ekitaldi frango antolatu dira jendea erakartzeko basur-

deak sustengatzeko. Goizean haur, buraso, hezitzaile eta jokalarizaharren artean 'hunkitze' matxa bat antolatua izan da, ondotik zintzur bustitza errekiekin. Arratsaldean basurde gazteek matxa bat jokatu dute, ondotik errubilariei lekua uzteko. Basurdeek finalerako lekua irabazi dute, 15-0 nagusituz.

Eskola publikoko gurasoen saltzeak

Apirilaren 23 an igandearakin, eskola publikoko gurasoek pastiza salmenta bat antolatzen dute plazan, goizeko 9etatik goiti. Maiatzaren 1ean, San Josepeko gurasoek, urtero bezala, ezkongai lore xortak salduko dituzte, goizeko 8etatik goiti.

BERAN APIRILAK 29

Udaberrirako egitarau zabala prest Solaslaguna ekimenak

TTIPI-TTAPA

Solaslaguna ekimenak egitarau zabala prestatu du udaberrira begira. Lehen ekitaldia apirilaren 29an egingen dute eta mendilagunek mugaz muga mendi buelta egingen dute Ibar-din inguruan.

Maiatzaren 13an, Zuru-rukaingo Aroa bodegara irteera egingen dute mintzakideekin. Bisita gidatua eta bazkaria izanen dute.

Ekainaren 3an Mintza Eguna ospatuko dute Txorierrin eta akitzeko, ekainaren 17an ikas-turteari agurra eskainiko diote, Alkurruntzerat irteera eginez eta Otsondon bazkari auto-gestionatua antolatuz.

BAIGORRIN APIRILAK 30

Nafarroaren Eguna ekitaldiz gainezka dator

TTIPI-TTAPA

Baigorriko Basaizea Kultur Batasunak antolatuta, Nafarroaren eguna ospatuko dute apirilko azken igandean. *Kartsuki, alaiki, herria eraiki* izan da aurtengo ediziorako aukeratu duten leloa eta bertze urte batez, besta giroa izanen da nagusi egun osoan Baigorriko karriketari. Musika, artisauen azoka, bertsolariak, dantzariak, bazkaria, haurrendako ekitaldiak, kale animazioa... ez dira faltako.

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONZETEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Mármoles
SOULE

HILETA ARTEA

T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ - MUGAIRI

EZKONTZAK

Pedro Jose Zapirain Sagaseta eta **Yudi Adcened Medina Ruiz**, Lesaka eta Iruñekoa, apirilaren 1ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Maren Vicente Oiartzabal, Lesakakoa, martxoaren 31n.

Julen Zozaia Ayechu, Lesakakoa, apirilaren 2an.

Iraia Sarratea Arretxea, Sunbillakoa, martxoaren 31n.

Aiur Makazaga Zabala, Goizuetakoa, apirilaren 7an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Matias Mayora Jaimerena, Iruritikoa, apirilaren 3an, 67 urte.

Antonio Urdaniz Mixelena, Arraiozkoa, apirilaren 4an, 80 urte.

Luis Maria Martinez Zunda, Lesakakoa, apirilaren 4an, 78 urte.

Luis Etxeberria Otondo, Erratzukoa, apirilaren 8an, 79 urte.

Henriette Burguet, Sarakoa, martxoaren 12an, 72 urte.

Jeanne Hariscain, Sarakoa. martxoaren 12an, 84 urte

Michelle Jude, Sarakoa, martxoaren 17an, 81 urte.

Maria Cruz Olleta, Sarakoa, martxoaren 17an, 90 urte.

Maria Eugenia Urrutia Barrenetxe, Zugarramurdikoa, martxoaren 6an.



Donato LIZARDI GISASOLA
Arantzan, 2017ko martxoaren 28an

Arantzako semea zara eta mendia izan duzu maite ez zinelako biziko mendira joan gabe.

Eta gaur guri utzi bagaituzu ere ez zara biziko Arraldera begiratu gabe.

ZURE FAMILIA



Daniel ARBURUA TOMASENA
Leitzan, 2013ko apirilaren 30ean

IV. URTEMUGA

Badira lau urte ixilean joan zinela huts haundi bat utziz zuk emandako guztia gurekin geldituko da bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko.

ETXEKOAK

Rekordatorioak egiten ditugu

ttipi-ttapa

Koskontako Bidea, 7-1
LESAKA | 948635458



ARGAZKIA: MIEL MARI ELOSEGI

Hemeretzi urtez aritu da Abel Barriola atzelari postuan.

KIROLA → ABEL BARRIOLA EZKURRA

«Nire eskola izan da pilota, naizen guztia zor diot»

Hemeretzi urtez profesionaletan aritu ondotik, maiatzaren 7an bukatuko du ibilbidea Abel Barriolak

Badira egia bihurtzen diren ametsak. Eta zer ederragorik ametsa noiz bukatzen den norberak erabakitzea baino? 2016ko abenduaren 2an iragarri zuen Abelek binakako txapelketa bukatutakoan utziko zuela pilota eta maiatzaren

7an Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatu du azken partida. TTIPI-TTAPA aldizkariarekin bildu da leitzarra, memoria eta emozioak dantzan jarrita, urte hauetako ibilbideari errebasoa emateko.

Eneritz IRAOLA

Amazabal pilotalekuan eman zituen lehenbiziko errestoak Abelek: «etxe aurrean nuen frontoia eta irekia egoten zen beti. Bizia bertan egiten genuen». Umetatik izan zuen argi pilotaria izan nahi zuela: «nire izarrak herri-kirolariak eta pilotariak ziren. Tartean genituen herritarrak, Juan

Mari eta Migel Bengoetxea adibidez. Argi neukan beraiek bezalakoa izan nahi nuela handia nintzenez. Eta helburu hori lortzeko ahal nuen guztia egiten saiatu nintzen».

Garaitu hartan sortu zen Aurrera pilota eskola eta bertan sartu zitzaion barruraino pilotarako afizioa: «herrian ari-

tzen nintzen entrenatzen eta 16-17 urterekin Iruñera joan nintzen, Paz de Ziganda Ikañolako klubean aritzeko. Handik, zuzenean, profesionaletan debuta egin nuen».

«ZORIONTSU IZAN NAIZ»

Hemeretzi urte pasatu dira orduetik eta denbora azkar pasatu dela dio: «gustuko duzun zer-

bait egiten ari zarenean erraz pasatzen dira urteak». Argi du: «zoriontsu izan naiz. Pila bat disfrutatu dut momentu on zein txarrekin. Pilotari nik eman diodana baino askoz gehiago eman dit pilotak niri».

Debutatu eta denbora gutxira lortu zituen lehenbiziko bitxapel nagusiak (2001ean lau t'erd-

koa eta 2002an buruzburukoa). Binakakoa, berriz, gehixeago kostatzen zitzaion (Irujorekin irabazituen 2014an). Tarte horretan askotan izan zen txapeldunordea «finala galtzeak beti ematen du mina. Nik ulertzen dut bizitzan gauza larriagoak badaudela baina, finala galtzen duzunean, momentu horretan gerta daitekeen gauzarik txarrena da». Dena den, final horietatik ere ikasten da zerbait «ezin zara horri bueltak ematen aritu. Baloratu behar da finalean egoitea oso zaila dela eta urte askoan goi mailan egoitea ere ez dela erraza».

«Iaz Ezkurdiak eta aurten Altunak, binakako lehenbiziko txapela nirekin lortzea nahi nuen, baina ez da posible izan. Arantzatxo hori geratu zait barruan».

Ihes egindako txapelen artean dago 2008ko buruzburukoa «Oinatz eta bien arteko finala berezia izan zen. Ez nuen txapela lortu baina oroitzen goxoa dut oso. Herriak momentu polit bat bizi izan zuen guregatik eta guk herriarengatik ere bai. Pilota partida batek lortu zuen bestela ia ezinezkoa zena; herri osoa elkartzea. Hori ikustea oso polita da».

ZALEEN BABESA

Kirolaren majiaz ere hitz egin du Abelek «partida ona jokatu eta jendeak zu ikusten asko disfrutatu duela nabaritze-

«Pena izan da Oinatzekin gehiago ez jokatu izana. Gure ibilbidean gehiago ez elkar gurutzatzea. Bera Asegarcen egon da eta ni Aspen eta hala tokatu da».


Motzean

• Momenturik gozoenak...

Txapelak irabaztea beti da polita, lan asko dagoelako atzetik. Zaila da eta lortzen duzunean, berezia sentitzen zara. Baina zure ibilbidea kolokan jarri duen lesio batetik ateratzeak, esanen nuke, oraindik eta aho-zapore hobea uzten dizula. Bi lesio larri izan ditut nik, bat eskuan eta bestea belanean. Zure burua berriro ere zuriz jantzita pilotan jokatzeko duzunean, isilean egindako lanaren ordaina jasotzen duzu. Oroitzapen politenak horiek dira.

• Erabakia hartzea...

Erabakia ez da erraza, oso zaila da. Bizi guztian egin duzun gauza bat delako, zure pasio eta afiziorik handiena izan delako. Pilotan jokatzeari utzi egin behar diozulako... horregatik zaila da baina alde ona ere ikusi behar zaio. Pribilegiatu bat izan naiz, hemeretzi urte baino gehiago profesional munduan egoteagatik, zoriontsu izan naiz mundu honetan... Horren polita izan da ibilbidea, bukaerak ere polita behar zuela izan. Debutaren momentua ez dago zure eskuetan, baina bukaera nire eskuetan egotea nik uste pribilegio bat dela eta gauza oso polit bat dela erabakia nik hartzeko aukera izatea.



ARGAZKIA: E. IRAOLA

ak bete egiten zaitu. Txapelketan gerta liteke eta baita festetako jaialdi batean ere. Hori da majia. Ikuslea partidaren sartuta dagoela nabari duzu, txaloka, zutik... momentu horiek ahaztezinak dira».

«Ibilbideari bukaera polita eman nahi nion kantxan, pilotan ongi jokatuz. Momentuz lortzen ari naiz eta hala izatea nahi nuke bukaerara arte».

ALDAKETA PILOTAN

Hemeretzi urte hauetan gizartean izan diren aldaketek kirolean ere islada izan dutela uste du: «geroz eta indar gehiago hartzen du espektakuluak eta horregatik, agian, aurrelarien jokoa garrantzia gehiago ematen zaio batzuetan». Ez da ahaztu behar, ordea, atzean ere eutsi egin behar zaiola «fisikoki oso lan gogorra da. Askotan eskuetatik sufritzen ari

zara baina segi egin behar duzu. Zorionez, pilotari eta ikusle askorentzat espektakulu baina askoz gehiago da pilota: baloreak, esfortzua, lana...».

Bere ibilbidean hainbat belaunalditako pilotariekin lan egiteko au-

kera ere izan du eta pilotaria apenas aldatu dela iruditzen zaio: «gu gazteak ginenean ilusioz gainezka geuden, munda jateko gogoarekin eta orain heldu diren gazteak ere berdindin heldu dira». Etorkizuneko pilotariak direla

esaten da baina «ez ditira etorkizuna, oraina dira. Haiek kantxan ikustea besterik ez dago... Daukaten adinerako oso helduak dira, pilotari errespetu handia diote, oso serioak dira bere lanean eta kalitate handia duten pilotariak dira. Ar-

gi daukat esku-pilotaz disfrutatzen segitzeko aukera izanen dugula».

AZKEN PARTIDAK

Martxoaren 31n jokatu zuen Abelek azken partida Leitza eta apirilaren 18an Labriten arituz ondotik, hiru hitzordu geratzen zaizkio. Apirilaren 23an Gasteizko Ogeta pilotalekuan arituko da eta 30ean Eibarren Astelenan. Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatu du azken partida «momentu horretarako, urduritasun puntua, beldurra, poza handia... denetik izaten duzu. Pasatzeko gogoera ere bai. Baina gauza guztien gaintetik, disfrutatze momentuak dira».

Profesionalitateko ibilbideari agur esanen dio baina argi du beti egonen dela pilotari lotua «Nire eskola izan da pilota, naizela guztia zor diot. Barutik ateratzen zaidan zerbait da, zerbait naturala. Beti bizitu izan eta biziko dudana».



ARGAZKIA: MIEL MARI ELOSEGI
Leitza pilotalekuan jokatu zuen azken partidaren ondotik, martxoaren 31n.

MENDI LASTERKETAK → XIII. MENDI MARATOI ERDIA APirilAREN 9AN

Oier Ariznabarretak eta Maria Zorrozak irabazi dute Beran

Laugarren garaipena segidan lortu zuen Durangokoak eta estreinekoa Gernikako emakumeak

TTIPI-TTAPA

Oier Ariznabarreta (Durango), 1:44:05eko denborarekin, eta Maria Zorroza (Gernika) 2:02:10-ekoarekin, irabazle suertatu ziren apirilaren 9an Berako XIII. Mendi Maratoi Erdian. Ariznabarretak ez zuen arazorik izan gizon-nezkoetan irabazteko, Beñat Katarain (Zegama) eta Jon Ugalderen (Andoain) aurretik hurrenez hurren, Larun mendia punturik altuena zuen (900 metro) eta 2700 metrotako desnibela zeukan 21 kilometrotako ibilbide gogorren.

Irabazleak ezin izan zuen berak 2014n ezarri zuen errekorra hobetu, 1 ordu, 37 minutu eta 30 segundukoa. Ibardingo tarteko helmugan ere (150 euroko saria) Durangoko korrikalaria izan zen lehena.

Emakumezkoetan, lehenengoz Maria Zorroza (Gernika) izan da Berako kiroldegiko helmugara iristen bizkorrena, Laura Sola uztarrotzarraren (azken 3 ediziotako irabazlea) eta Alizia Olazabal irundararen aurretik.

547 korrikalarik par-



te hartu zuten lasterketan, haietatik 530 iritsi ziren helmugara. Jende aunitz hurbildu zen, berrizuzgarri batekin jokatu zen lasterketaz disfrutatzen. Dena den ez zen aparteko ezustekorik egon.

Isabako Txapatera Landetxean asteburua pasatzeko zozketako boleto saritua 147a izan da.



ARGAZKIAK: MANTTALE

Goitik beheiti, gizasemeen podiuma, Maria Zorroza helmugara ailegatzen eta kirolariak Ibardinetik goiti.

ESKUALDEKOAK

11	Inaki Mihura-Baztan
15	Daniel Iparragirre-Arantza
20	Imanol Lukanbio-Arantza
21	Asier Apezetxea-Arantza
23	Ibon Erdozain-Bera
25	Michel Guilçou-Senpere
26	Xabier Maritxalar-Lesaka
38	Agoitz Altzugarai-Lesaka
43	Beñat Saralegi-Leitza
47	Hodei Lujanbio-Goizueta
52	Julen Lizarraga-Leitza
56	Mikel Urtxegi-Igantzi
60	M. Angel Iñarrea-Baztan
61	Xuban Eugi-Baztan
68	Ibai Berregi-Zubietta
69	Gorka Bermejo-Leitza
78	Miguel Solano-Etxalar
81	Julio Cesar Asto-Lesaka
87	Oskar Ariztimuño-Leitza
93	Dani Etxeberria-Baztan
112	Eneko Andueza-Leitza
115	Gaizka Gallardon-Etxalar
123	Beñat Saralegi-Lesaka
125	Xabier Iturria-Arantza
127	Imanol Otero-Baztan
128	Haritz Aranzegi-Leitza
137	Juan Luis Irazoki-Bera
143	Inaki Zabaleta-Leitza
148	Aitor Berra-Senpere
149	Inigo Arrieta-Sunbilla
150	Xabat Gonzalez-Lesaka
153	Josu Zestau-Leitza
154	Mixel Bourgoïn-Senpere
156	Inaki Larrañaga-Bera
157	Mattin Garbisu-Lesaka
160	Inigo Lasaga-Bera
162	Ugaitz Adu-Bera
169	Asier Gamio-Baztan
181	Mikel Viñao-Bera
190	Patxi Barberena-Baztan
196	Unai Elizagoien-Bera
203	Mikel Inda-Bera
205	Javier Oteiza-Baztan
207	Gabon Gamio-Baztan
227	Joxe Iturzaeta-Baztan
239	René Irubetagoiena-Senpere
244	Borja Jaimerena-Elizondo
250	Joseba Garcia-Sunbilla
259	Ismael Fernandez-Bera
269	Xanti Lertxundi-Baztan
276	Beñat Sein-Senpere
274	Andoni Garbisu-Sara
278	Gaizka Otxandorena-Baztan
280	Ana Reina-Lesaka
282	Eneko Herrera-Sunbilla
284	Adur Yanci-Igantzi
286	JM Indakoetxea-Lesaka
291	Joxean Arruti-Lesaka
292	Bernard Bergara-Senpere
300	Inaki Zelaieta-Bertizarana
302	Aritz Perez-Bera
303	Jagoba Ramos-Baztan
309	Imanol Moreno-Bera
326	J. Mixe Goienetxe-Sara
349	Xanti Dendarieta-Baztan
350	Josu Juanena-Donetxebe
365	Andoni Lasaga-Etxalar
366	Fausto Prieto-Bera
370	Txema Otxoteko-Bera
376	Txus Unson-Bera
378	Adur Bernaola-Leitza
384	Gorka Aldako-Elizondo
387	Santiago Yanci-Elizondo
393	Jon Irazoki-Bera
398	Aitor Huizi-Leitza
408	Mikel Saenz-Leitza
410	M. Ramon Olano-Leitza
417	Javier Larruy-Etxalar
426	Gonzalo Errandonea-Sunbilla
434	Xabier Andueza-Lesaka
435	Antonio Rodriguez-Bera
448	Mikel Aldazabal-Bera
458	Rafa Alzate-Baztan
465	Christian Sanchez-Sara
469	Julen Larregi-Baztan
470	Asier Arburua-Etxalar
471	Iratxe Iturria-Etxalar
473	Irene Matxiarena-Bera
472	Manuel Gouraud-Bera
486	Asier Etxeberria-Lesaka
493	Miguel Olano-Leitza
502	Miguel Azkarraga-Baztan
503	Mikel Larregi-Elizondo
504	Inaki Eskudero-Bera
511	Maitte Bengoetxea-Bera
512	Mikel Elizondo-Bera
513	M ^a Carmen Urtxegi-Bera
517	Ibon Bereau-Bera
522	Aitziber Iturria-Bera
527	Imanol Arretxea-Baztan

MENDI BIZIKLETA-LASTERKA → APIRILAREN 29AN

Bikin Batin duatloia prest du Lesakan Nafarroa Oinezek

20 kilometro mendi bizikletan eta 13 lasterka egin beharko dute kirolariek

TTIPI-TTAPA

2017ko Nafarroa Oinezeko urteko jardueren baitan, kirol proba berezia antolatu da api-

rilaren 29rako Lesakan: Bikin batin duatloia. Nafarroa Oinezeko leolari lotuta, kirolariek bi modalitatekin proba bat egingen dute hemen ere eta 20 kilometro inguruko ibilbidea mendi bizikletan (854 metroko desnibel positiboa) eta 13 kilometrokoa lasterka (450 metroko desnibela) osatu beharko dute bikoteka.

Irteera, goizeko



ARGAZKIA: NAFARROA OINEZ

Ibilbidea ezagutzeko hitzordua izan zuten apirilaren 2an Lesakan.

9:00etan izanen dute Plaza Zaharrean, erreleboa Lindurrenborda sagardotegian emanen dio txirindulariak korrikalariari eta helmuga berriz ere plazan izanen dute.

Bai plazan, baita Lindurrenbordan ere, animazioa izanen da eta probaren ondotik, herri bazkaria, nahi duten kirolarientzat, baita proban parte hartu gabe

ere, izena ematen duen edonorentzat ere.

Probarako izenematea egin daiteke dagoeneko www.kirolprobak.com webgunean. Hasiera batean, 18 urtetik goitikoendako proba bazen ere, eskari handia dela eta, 16 eta 18 urteko kirolariek ere parte hartzeko aukera izanen dute, gurasoen baimen sinatuarekin.

Bazkarirako txarte-

lak, berriz, Izarra okindegian eta Berako Xugan har daitezke apirilaren 23ra arte, baita koordinazioa@oinez2017.ikastola.eus helbide elektronikoan ere. Helduek 12 euro ordu beharko dute eta 12 urte arteko haurrek 6 euro. Bazkaria girotzeko musika izanen da eta bazkalondoan sari ezberdinen zozketak ere egingen dituzte.

PILOTA → APIRILAREN 9AN ELIZONDO ETA AMAIURREN

Udaberriko 27. txapelketako finalak jokatu dituzte Baztanen

130 bikote aritu dira lehian

TTIPI-TTAPA

Txaruta elkarteak 27. aldiz antolatutako Udaberriko txapelketako finalak apirilaren 9an jokatu zituzten Elizondoko Baztan Udaltalekuan eta Amaiurren Gure Ametsa pilotalekuan. Denera 130 bikote aritu dira txapelketa honetan otsailaren 4tik aitzinera eta Abel Ba-

rriola izan zen sari banaketan, bertze behin ere bere gizatasun handia erakutsiz.

Umeak A: Zigako Oier Prim eta Amaiurko Arkaitz Goienetxe 18-12 irabazi zieten Andoaingo Aimar Segurola eta Oihan Lanzetari.

Kimuak A: Lazkao-ko Ugaitz Belauntzarren eta Iker Garciak 18-6 irabazi zieten Lesakako Oihan Etxeberria eta Zeanuriko Bingen Beitari.



ZALDUA fotografos

ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Txapelketako finalistak, Abel Barriolarekin.

Haurrak A: Paz Zizandako Iker Ibarra eta Arai Murillok 18-15 irabazi zieten Arbizuko Iorritz Gorrotxategi eta Eñaut Goikoetxeari.

Kadete A: Lekarozko Oier Ariztegi eta Elizondoko Axier Ballarenak 18-7 irabazi zieten Zizurko Diego Etxague eta Gaizka Agirriari.

Gazteak: Arbizuko bi bikoteraren arteko finala jokatu zuten eta Ur-

tzi Nazabal eta Jon Lazkozok 22-5 irabazi zieten Josu Olaetxea eta Mattin Petriatiri.

Umeak B: Berako Eukeni Etxenike eta Martxel Salgadok 18-13 irabazi zieten Ultzamako Markel Iribarren eta Markel Iturraldiari.

Kimuak B: Orozoko Joel Garaikoetxea eta Lekarozko Joakin Salaburuk 18-8 irabazi zieten Elizondoko

Ibai Iturregi eta Almanozko Iker Sagardiari.

Haurrak B: Hernaniko Jon Jara eta Unai Etxarrik 18-11 irabazi zieten Andoaingo Iker Uria eta Iñaki Urruzolari.

Kadete B: Barañain-ko Ruben Basterretxea eta Etxarriko Lopez de Zeriok 18-8 irabazi zieten Oberenako Mikel Otondo eta Zigako Aimar Prim-i.

apirilak 20 - maiatzak 4

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Solasaldiak



IGANTZI | 2017.04.28

Manu Eziolaza medikua heriotz duinaz ariko da solasean

Urte aunitzez Igantziko medikua izan zen Manu Eziolazak eta orain Duintasunetz Hiltzeko Eskubidea elkarteko presidentea denak *Heriotz duina eta bizi testamentua* solasaldia eskainiko du Biltoki elkartearen.

Feriak



ELIZONDO-BERA | 2017.04.21-29

Udaberriko Feria Elizondon eta Azienda Feria Beran

Elizondoko ferien barne, XXIX. Ahari Lehiaketa jokatu da eta horrez gain, dantzariak, azokak, txistulari eta dantzariak, haurrendako tailerrak izanen dira. Beran kiroldegi aitzinera aterako dituzte aziendak.

Ospakizunak



DONEZTEBE | 2017.04.30

Lehenbiziko aldiz dantzari eguna antolatu dute

Hainbat taldetako dantzariak gonbidatu dituzte Doneztebera eta goizean herrian barna ibiliko dira dantzan. Eguerdian BearZana frontoian elkartuko dira eta gero bazkaria egingen dute.

Solasaldiak

GOIZUETA

'Ulertu, lagundu ahal izateko' transexualitatea hizpide

Apirilaren 24an eskolako jantokian, 17:30ean, Erika Salbaterra sexologoa eta Edurne Koch eta Asier Mariezkurrena Chrysallis elkartearen kideekin.

BERA

'Isidoro Fagoaga, idazle eta kantari beratarra'

Apirilaren 28an German Ereñarekin, 19:00etan Beralandetan (gaztelaniaz).

IGANTZI

'Heriotz duina eta bizi testamentua'

Apirilaren 28an Manu Eziolaza 19:00etan Biltokin.
Siriako errefuxiatuei buruz
Maiatzaren 1ean Joxan Ortega Eskolzarren (19:00).

Erakusketak

BERA

Isidoro Fagoagaren ibilbidearen erakusketa

Apirilaren 21etik maiatzaren 21era Kultur Etxean.

Ikastaroak

ARIZKUN

'Bizi bat nola salbatu'

Apirilaren 22an 18:30ean.

ANIZ

Bazken aldizkatze ikastaroa

Apirilaren 29an Jauregian, 10:00etan. Izen-ematea hazitikhozie@gmail.com-en.

BERROETA

Eraso sexisten identifikazioa eta protokoloaren lanketa

Maiatzaren 5ean 19:00etatik 21:00etara elkartearen. Izena maiatzaren 2a baino lehen: ba2feminista@baztan.eus edo 650 729639.

DONEZTEBE

Estresa prebenitu eta gainditzeko ikastaroa doan

Maiatzaren 9tik ekainaren

6ra Herriko Ostatuan, astear-te eta ortzegunetan 16:30etik 20:30era. Apuntatzeko 948 281200ra deitu edo pamplona@cenforpre.net-era idatzi.

Antzerkiak

ELIZONDO

'Beldartxo jatuna' haurrentako

Apirilaren 26an 17:00etan Baztango Herri liburutegian.

Ipuin-kontalariak

IGANTZI

Estitxu Mentaberriekin

Apirilaren 23an eguerdian Barazarren.

BERA

Maidar Galarza haurrentzat

Apirilaren 28an 18:00etan Herri Liburutegian

Kontzertuak

ERRATZU

Kontzertuak ZubiPuntan

Apirilaren 21ean Xabaltx 23:00etan.

Maiatzaren 19an Kaskezur taldea, 23:00etan.

SENPERE

Pantxoa Carrereren kontzertua

Apirilaren 21ean Larreko Gellan, 19:30ean.

PROPOSAMENA

BAIGORRI

Nafarroaren Eguna apirilaren 30ean

Kartsuki, alaiki, herria eraki leloa aukeratu dute apirileko azken igandean Baigorri ospatuko den Nafarroaren Egunerako. Aurtengo ere egitarau zabala prestatu du Basaizea Kultur Batasunak: musika, artisauen azoka, bertsolariak, dantzariak, bazkaria, haurrentako ekitaldiak, kale animazioa... Denetarik izanen da heldu den apirilaren 30ean Baigorriko karriketan.



BERA

Karnaba otxotea

Apirilaren 21ean 18:00etatik aitzinera.

Sorotan Babies taldea

Apirilaren 22an Katak Herri Ostatuan.

Institutuetako ikasleen saioa

Apirilaren 27an Eztegarra pilotalekuan, 17:00etan.

Zimiko Punk jaialdia

Maiatzaren 6an Katak Herri Ostatuan.

LEKAROZ

Institutuetako ikasleen kontzertua

Maiatzaren 2an 17:00etan institutuko kiroldegian.

DONEZTEBE

Institutuetako ikasleen kontzertua

Maiatzaren 3an 17:00etan frontoian.

LEITZA

Institutuetako ikasleen kontzertua

Maiatzaren 4an 17:00etan frontoian.

ELIZONDO

Elizondoko Recreo Musika Bandaren emanaldia

Maiatzaren 6an 19:30ean plazan.

Zinema

DONEZTEBE

Denboraldiko azken filma

Apirilaren 23an *Vaiana* filma 16:30ean Zineman.

ARANTZA

'Gutik Zura' dokumentala

Apirilaren 22an 17:00etan eskolako gimnasioan.


Azokak

ELIZONDO

Udaberriko feria

Apirilaren 21ean.

Nire aukera



Maialen SOBRINO LOPEZ

Gauza berriak egiten ikastea gustuko duen elizondarra

«*Euskara erreferentzia baliotsua da bertze hizkuntza guttitu aunitzendako*»

Atzerrian aurkeztu naizen guztietan Maialen naizela erran eta gero galdera auserki etorri dira: nola idazten den, non- goa naizen, euskara nondik heldu den... Hemen Maialen erratearekin aski, eztala?». Halaxe erranez aurkeztu digu bere burua elizondar gazteak. Ez omen da «sobera originala afizioetan», baina «hori bai, gauza berriak egiten ikastea» gustatzen omen zaio. Irakurtzea atsegin du, baina ez du liburu bat aukeratu: «egoera, pertsona, momentuaren arabera da irakurgaia. Gainera, Euskal Herrian idazle eta itzultzaile haundiak ditugu». Hala ere, «literaturatik eta gure mugetatik haratago, Svetlana Aleksievichen lana interesgarria» iruditzen zaio. Aunitz bidaiatutakoa da, eta «ahal izatekotan munduko bazter galduren bat» gustura eza- gutuko omen luke: «nik zer dakit, Kiritimati uhartea». Baina bada toki bat sekula ezagutuko ez duena, eta gustura eginen lukeena: «nire amatxi haurra zeneko Baztan». Onartu digunez, Elizondoko toki- rik maiteena «etxeko sukaldeko mahaia» du: «horren bueltan hamaika bizipen ama eta ahizpekin!». Gainerakoan, «ofizioz eta, oraintxe, afizioaz itzultzailea naiz». Garabide Elkartean ari da: «elkartek kooperazio linguistiko- koa edo hizkuntza lankidetzara jorratzen du, hegoaldeko herrialdeetan (Guatemala, Mexiko, Kolonia, Kurdistan...) tokiko hizkun- tzak biziberritzen laguntzen». Eta nola? «Euskararen esperientzia baliatuz. Batzuetan atzentzen zaigu, baina hondar hamarkade- tan euskal gizarteak animaleko biziberritze lana egin du eta arras erreferentzia baliotsua da bertze hizkuntza guttitu aunitzendako». Bere garaian, ordea, Poloniako unibertsitatean euskara irakasle ibili zen. Polonian euskara ikasten eta Baztanen oraindik batzuk ikasi gabea dutela eta, «bertzeak bertze, Poloniako ikasleek erraztasunak dituztelako» omen da: «sei eskola ordu dituzte aste- ro, irakasle natibo eta formatuekin, lau urtez debalde euskara ikasteko. Hemen nork erraten ahal du berbera?». Bere irudiko, «ongi legoke maizago fokoa paratzea euskarara hurbildu dire- nengan; batetik, ikasten ari direnak edo hasi nahi dutenak moti- batzeko eta, bertzetik, euskaldunak gure hizkuntzak egindako bideaz ohartzeko, eredu on aunitz ditugu inguruan altxapean».

«Poloniako ikasleek lau urtez debalde ikasten ahal dute euskara. Hemen nork erraten ahal du berbera?»

ERRATZU

Baztango artisauen azoka

Apirilaren 29an 10:00-14:00.

BERA

Azienda feria

Apirilaren 29an kiroldegi aitzinean.

SARA

Bertako ekoizleen merkatua

Apiriletik irailera ortziraleroko 16:30-20:30, frontoian.

DONEZTEBE

Udaberriko feria

Maiatzaren 5ean.

Ospakizunak

BAIGORRI

Nafarroaren Eguna

Apirilaren 30ean.

DONEZTEBE

I. Dantzari Eguna

Apirilaren 30ean.

IGANTZI

Liburuaren Eguna eta Udaberriko Bestak

Apirilaren 23an eta 28tik maiatzaren 1era.

Mendi ateraldiak

ARANTZA

Mendi lasterketa

Apirilaren 23an.

ETXALAR

Mendi itzulia

Apirilaren 23an.

GOIZUETA

Mendi itzulia

Apirilaren 23an Goizueta ezagutuz, 08:00etan plazatik.

BERA

Mendilagunen irteera

Apirilaren 29an Ibardinen barna, 10:00etan Altzateko Plazatik aterata.

SARA

Mendi itzulia

Maiatzaren 7an.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ORONOZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalera. Etxe mobleztatu, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatu. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onan dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mobleztatu eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akulegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 57.900 euro. ☎646 774117.

SUNBILLA. 92 m²ko pisua salgai. Berogailua, igogailua eta garajeko marrarekin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia eta egongela. ☎639 156105.

ARIZKUN. Aintzinalde auzoan Castroenea etxea salgai. 10 urte ditu etxeak. 6 logela, portxe handia, tximinia, berogailua... ☎639 585908 / 669 379498.

ITUREN. Neurri desberdinetako apartamentuak hagitz prezio interesgarri salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@ttipi.eus edo erran.eus


SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

BERA. Ugalzuria kaleko 2. zenbakian, 79 m²ko pisua salgai. Sukalde-jangela-egongela, 2 logela, 2 terraza, igogailua, margotu berria eta garajea barne. 185.000 euro. ☎607 437189.



LESAKA. Pisua salgai Antoiu karrikan. 4 logela, sukaldia, hall ederra, komuna, egongela handia, despentsa eta trasteleku ederra. Sartzeko prest eta mobleztatu. ☎620 700964.

ETXEBIZITZAK**errentan emateko**

ETXALAR. Larrapil Sarriku auzoan etxe bat errentan emateko. He-

rriko bista zoragarriak eskaintzen dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handiarekin. Oso eguzkitsua. ☎687 766971 / 672 153196.



BERA. Bidasoa karrikan 5. zenbakian pisua errentan emateko. 2 logela, 2 komun, sukaldia eta jangelarekin. Igogailua. Garajeko bi marrarekin eta bi trastelekurekin. ☎680 549808.

LESAKA. Pisua errentan emateko Bittiria karrikan 18an. Laugarren solairua igogailuarekin. 4 gela, egongela, sukaldia eta bainugela. ☎626 500459.

GARAJEAK/LOKALAK**salgai**

LESAKA. 93 m²ko bajera salgai, Koskontako Bidea 11n. Gasa, ura eta argindarra sartuak ditu. ☎609 445769.

LESAKA. 48 m²ko bajera salgai edo errentan emateko, Koskontako Bidea 3. zenbakian, beheko solairua 6. Alarma sistemarekin, pertsiana elektrikoarekin eta bi komunekin. Bulegoa izateko prestatua. ☎609 445769.

DONEZTEBE. Amezitia karrikan lokal komertzial salgai. 98 m², azulejatu eta bainugelarekin. Erakusleho handia eta argitsua. ☎606 585163.

BERA. 31 m²ko garaje itxia saldu edo errentan emateko. Bidasoa karrikan, Telefonika ondoan. ☎617 902118.

GARAJEAK/LOKALAK**errentan emateko**

LESAKA. 80 m²ko lokala orduka errentan emateko. Arte martzialak, yoga, pilates, gimnasia aktibitateak lantzeko prestatua. Partikularrentzako edo taldeentzako aproposa. Tatamia, zaku profesionala eta berrizte hainbat gauzakin ekipatua. ☎629 687171.

LURRAK/ORUBEAK**erosi**

OIZ. Herri inguruan lur saila erosi edo errentan hartuko nuke. ☎655 705506.

LANA**eskaintzak**

On-line lanean aritzeko zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo berrizte langileak behar dira. ☎699 382673.

Bentetan langileak behar ditugu: sukaldariak, zerbitzariak, harakinak, saltzaileak, kajerak... *ven tasfrontiere@gmail.com* edo (0034) 626 247331.

Urdazubin emakume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. ☎686 634332.

ZUGARRAMURDI. Graxianajetxean sukaldaria behar da urte osoan lan egiteko. ☎675 711498.

Garbiketari ari eta berrizte lanetan laguntzeko **emakume bila Bazta-**

BASERRIADATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(martxoaren 31tik apirilaren 7ra bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 67 €

Zerri gizena
1,310 € kiloak.

Zerramak:
0,800 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,32

1.koa 4,10

2.koa 3,90

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,34

1.koa 4,20

2.koa 4,00

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,26/3,36
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/6,00
8-10 kilokoak: 4,70/5,20

nen (pertsonea heldua bada hobe), asteburuetan aritzeko. Ez da ezinbertzekoa euskaraz jakitea baina euskararekiko onarpene eta errespetu erabatekoa bai. ☎633 621982 (whatsapp).

BERA. Ibardinen zerbitzaria behar da uztaile erdialdetik irailera arte lan egiteko. Esperientzia duena eta frantsesez dakiena. ☎948 630311.

URRUÑA. Col d'Ibardin kanpinean, sukaldaria behar da maiatzetik urrira arte jabetxean lan egiteko. Guttierrez frantsesa ulertzea eskatzen da. *michel@col-ibardin.com*. ☎(0033) 607 729877.

BORTZIRIAK-MALE-RREKA. Fruta-denda batean lan egiteko jendea behar da. ☎647 254263.

LANA eskariak

19 urteko neska lan bila. Haurrak zaintzen, portalak garbitzen, dendan dependienta gisa... ariko litzateke. ☎676 217765,

Berako emakume arduratsua edozein lanetan aritzeko prest: garbiketari, adineko pertsonek zaintzen... ☎667 958488.

Interna moduan adinekoak zaintzeko **emakumea** lan bila. Adinekoak zaintzen esperientziaduna eta garbiketari lanetan aritua. ☎631 379865.

Emakumea Baztanen lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia handikoa (6 urte). Adinekoak edo haurrak zaintzen edo garbiketari interesa. ☎606 589377.

Baztanen adinekoak zaintzeko esperientzia handiko **emakume euskalduna** lan bila. ☎948 453135.

Adinekoak zaintzeko lan bila. Adinekoak zaintzen esperientziaduna eta ordutegi aldetik disonibilitatea. ☎606 330200.

MOTORRAK salgai

Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5 TDI 5 zilindroak 102 cv. Nazionala. 335.000 KM. Oso ongi zaindua, beti garajean. Extra asko: portabizikleta, toldoa, *avance* tunela, kalefakzio estatikoa, konbertidorea... ☎630 041480.



Leon FR 2.0 TDI autoa salgai. 2014ko ekainekoa. Extra ugari, 5 atekoa, aurreko gurpilak aldatu berriak eta 4 urte edo 80.000 km bitarte etxeko garanziarekin. 50.000 km eta jabe bakarra. ☎620 700964.



Volkswagen Touran autoa salgai, 140 cv eta 2012. urtekoa. 87.900 km. Extra aunitzekin. Oso egoera onean. Prezioa: 17.250 euro. ☎607 924379 / 670 303520.



BERA. Audi A3 TDI 105 cv salgai. Barruko ekipazioa larruzkoa, eserleku beroaztatuekin. Oso egoera onean. 217.000 km. ☎661 846548.



MOTORRAK tailerrak



ZERBITZUAK denetarik

ROSA BELZUNEGI PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

ZERBITZUAK zurgindegiak

ARANTZA Zurgindegia.....
• Klase guzietako zurgin lanak
• Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaia - ARANTZA

ANIMALIAK oparitzeko

ITUREN. Sei txakurkume oparitzeko. Hilabete eta erdi dute. Ama setter arrazakoa eta aita mestizoa. ☎609 833055.

OIZ. Zakurrak oparitzeko. ☎674 414645.



ANIMALIAK saskgaur

Behi suiza salgai, 3 urte eta erdikoa. 8 hilabetez ernari. Txahala mestizoa. ☎634 452735.

Zezena salgai, piriniar arrazakoa. ☎630 184847.

DENETARIK salerosketak

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,5 metro

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanean da. ☎676 242520.



Logela osoa salgai. 2 ohe, mesanotxea, komoda ispiluarekin eta armairua. Materiala: pinua. ☎676 442504.



Bigarren eskuko **panelezko hotz kamara industriala** salgai bere motor eta kontrol elektronikorekin. 1,5 m zabal x 1,2 m luze x 2,5 m altue-

IRA-GAR-KIA
aldizkarian + interneten
10 EURO

ttipi-ttapa
Tel. 948 635 458
erran.eus

ra. 1.980 euro instalazioa barne. ☎619 248192.



Akazia piketeak salgai, 2,5 euro bakoitza. ☎948 510143.



Behoko sua salgai. Egitura osoa, egurra, harria eta guzti. Hagitz egoera onean. ☎699 912159.



Gaztain piketeak salgai. 2 euro bakoitzeko. ☎680 700374.

PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL


PELOZIRI

Eooo! Hementxe gaude berriz ere!!!



DOMINOA

Marraztu falta diren irudiak, domino joko hau zuzena izan dadin!



EZETZ ASMATU

Osatu esaera zaharra



A ZE PAREA

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txexka; 4) erran.eus bitartez



Arantzako **XUBAN TABERNA MUTUBERRIAK** apirilaren 10ean 11 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familia guziaren partetik!



URKI BERTIZ GRAJIRENA etxeko motoristak 4 urte beteko ditu apirilaren 25ean!!! Aunitz urtez Sunbilla eta Labaiengo familien partetik eta muxu pila bat Joanes, Ekiñe eta Joneren partetik!!!!



Zorionak **AMATXI XEXILI!** Apirilaren 24an elkarrekin ospatuko dugu zure urtebetetzea txokolatezko bizkotxo batekin! Muxu asko!



Berako **ANDER PAGOLA LOPEZ** gure txapeldunak 8 urte bete ditu apirilaren 16n. Ongi pasa eta muxu handi bat familia guziaren partetik!



Berako **EÑAUT ALTZUGUREN** **IRATZOKIK** urtea beteko du apirilaren 22an. Aunitz urtez Xuane, attatto eta amatoren partetik.



PAULO OLAIZOLA urdazubiarran nire aitaxi maitagarriari apirilaren 18ko partez zorionak aunitz!! Ederkixko ospatu dugu. Muxu hauundi bat zure biloba Pablo Olaizola II.a eta Mixinaren partetik.



Urdazubiko **PABLO OLAIZOLA ESPELOSIN** ageri da hementxe, baina orain urte batzuk gehixagokin aunitz urtez! Apirileko 18ko partez, zure alaba Alizia eta familia.



Zorionak **JONE ORUBE URIA** etxeko erreginari!!!! Zazpi urte bete ditu apirilaren 17an. Aunitz urtez etxeko partetik eta batez ere Maialen eta Irati ahizpen partetik. Prestatu pastel goxoa denentzat!!!



Elko, Nevadako **KYLE OWSLEY** **IGOAK** 15 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak Lesakako familiaren partetik. Muxu handi bat!



hemen agertu nahi duzu?

argazki soila **5** EURO

argazki bikoitza **10** EURO

egin zure erosketa erran.eusen

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN



erne ikastetxeak!

ikasle eta irakasleen agendak

- Datu pertsonalak
- Ikasturteko egutegia
- Asteko dietarioa
- Ebaluazio orria
- Jakinarazpenak
- Orrialde pertsonalizatuak

AZALAK PERTSONALIZATUAK

PLASTIKOZKO TAPAK

ESPIRALAREKIN KOADERNATUAK


Prezio eta aukera desberdinak zure beharretara egokituak.
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!



ttipi-ttapa

Koskontako bidea 7, behea | 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58 | kulturkari@ttipi.eus





Bortziriako

Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

www.bortziriakzabor.com
bulegoa@bortziriakzabor.com
Tel. 948 63 52 54

Jakinarazten da: 2017ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinatzen den bezalaxe:

2017ko TASAK

ERABILTZAILAILEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorren bizi ala ez	77,50 €	46,32 €
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	66,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	54,30 €	
1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta etxetresna sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak. Eraikin publikoak.	78,70 €	2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), etxetresna dendak eta farmaziak	154,60 €	
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	235,70 €	
1. Ostatua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak	157,10 €	
2. Ostatua. 30m ² baino azalera handiagoko ostatuak eta janari denda daukaten ostatuak	314,50 €	
3. Ostatua. Pub eta diskotekak	392,80 €	
1. Jatetxea. Modu iraunkorren irekiak dauden Elkarte gastronomikoak, eta 5 mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	392,80 €	
2. Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	707,40 €	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagokoa	78,70 €	2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	67,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	55,10 €	
2. Landetxea: 6 toki edo gehiagokoa	157,60 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	134,10 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	110,30 €	
1. Hostala. 10 logela edo gutxiagokoa	549,80 €	
2. Hostala. 10 logela baino gehiagoak	785,60 €	
Merkataritzako saltokiak, opariak bakarrik saltzeko	392,30 €	
Merkataritzako saltokiak, janaridenda edota ostatudunak	785,60 €	
Merkataritzako saltokiak, jatetxedunak	1.178,50 €	
Lantegiak, 4 langile bitarte. Jarduerak: argiketariak, iturginak, pintoreak...	78,70 €	
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	157,10 €	
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	392,80 €	
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	785,60 €	
Lantegiak, 60-150 langile bitarte	1.178,50 €	
Lantegiak, 150-300 langile bitarte	2.233,10 €	
Lantegiak, 300 langile baino gehiago	3.291,50 €	
Norberaren erabilerarako edukiontzia	763,50 €	

Ordaintzeko era

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea

- 2017ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2017ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaruarekin kobratuko da.

Bortziriak, 2017ko apirilaren 1a
Presidentea,
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

Ttapi Txartela

arekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

683

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Lote bat



MARTIKO

www.martiko.com

2 sarrera



IRRISARRI LAND

www.irrisarriland.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera helduentzat

LIBURUAK



- Zonbigunea | Peter Walker

- Zonbi parkean harrapatuta
- Heriovilleko sekretua

ibaizabal
www.elkar.eus

LAGUNTZAI LEAK



www.erein.eus



www.rhune.com